Kantutik jolasera

Lan taldea:
Pilar Calvera Alvarez
Nerea Zuloaga Martínez
Jose Ramon Arbe Soloeta
Estibalitz Arrizabalaga Txurruka
Josune Barandiaran Villar
Itxaso Arana Eiguren
Ana Etxeberrria Zarautz
Miren Josu Arriolabengoa Igarza
Ainhoa Markinez Arruza

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
BILBO, 1997

«Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
onetsia. (1997-X-8)»

© Musika Saila
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-86-4
Lege-gordailua: BI-2248-97

Inprimategia: RGM Servicio de Impresión. Larramendi 4. BILBO

Musika idazketa informatikoa: Errando Lopez de Luzuriaga

Azala eta barruko irudiak: Aitziber Alonso Pikabea

Banatzaileak: UEU. General Concha 25, 4. BILBO telf. 94-4217145
Zabaltzen: Igarabide, 88 DONOSTIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA 7

1.1. SARRERA OROKORRA 7
1.2. FOLKLOREA 8
1.3. ANALISIA 9
1.4. DIDAKTIKA 10

2. KANTUAK (sailkapenaren arabera) 15

2.1. SEHASKA KANTAK..... 15
2.1.1. Sarrera 15
2.1.2. Kantuak
– Mox Mox 15
– Loa loa 18
– Abulun, abulun, abuluna 21
– Lotxo 24
– Margulili artean 26

2.2. JOLAS KANTAK 29
2.2.1. Sarrera 29
2.2.2. Kantuak
– Iru bortzeko 29
– Txalopin txalo 31
– Talotxin talotxin 34
– Txalito txalo 36

2.3. OHITURAZKO KANTAK 41
2.3.1. Sarrera 41
2.3.2. Kantuak
– Aingeru batek dio 41
– Aur eder baten bila 44
– Aita San Antonio 47
– Eguen zuri eguna 51
– San Juan de la Porta Letaina 54
– Santa Ageda 57
– Ai au gabaren zoragarria 62

2.4. KANTA NARRATIBOAK 65
2.4.1. Sarrera 65
2.4.2. Kantuak
– Ama batek 65
– Argizagi ederra 69
– Joan nintzan merkatura 71
– Perretxikotan nenbilenian 84
– Xakurra eta gathia 87
– Belea eta axeria 99
– Astoa heldu bortutik 113

2.5. OFIZIOZKO KANTAK 117
2.5.1. Sarrera 117
2.5.2. Kantuak
– Arrain saltzaillia 117
– Iruten ari nuzu 123
– Landan eder aitzurra 131

2.6. KANTA SATIRIKOAK 137
2.6.1. Sarrera 137
2.6.2. Kantuak
– Adizan Gabriela 137
– Ama ezkondu ninduzun 145
– Aitak eman daut dotea 148
– Praka zar txikitxoa 151
– Aita zar bat badegu 153
– Ai, Peru, Peru, Peru 155
– Jose Mondragonek 159

2.7. DANTZARAKO KANTAK 163
2.7.1. Sarrera 163
2.7.2. Kantuak
– Baserritarrak 163
– Neskazarrak 165
– Aita San Migel 168
– Axuri beltza 171
– Txakolin, txakolin 173
– Orra or goiko 175
– Txantxoa 178

3. BIBLIOGRAFIA 181

1. SARRERA

1.1. SARRERA OROKORRA

Kantuak bizirik dirauen herrian zaharrek ez dute oroimena galtzen; gazteek ez diete oroimena galtzen uzten; eta haurrak gazte eta zaharren oroimena jasotzeko hezitzen dira.

Kantuak bizirik dirauen herrian oroimena kantu sorta eder bat da; eta zaharrak kantuen jaun eta jabe dira; gazteak kantuen hedatzaile, eta haurrak ikasle.

Kantuak bizirik dirauen herrian beti izango dira haur kantariak; eta haur kantarien atzean, beti hezitzaileak.

Baina, kantuak bizirik irauteko zer-nolako tradizioa eho du gure herriak?

Antzinako kantu herrikoiez testimonio historiko gutxi dugu. Izan badira erreferentzia batzuk –Estrabon geografo grekoarena, adibidez–, baina garai hartako gure musika nabarmenki aldatu bide zen, batez ere, kristautasunaren eraginez.

Gerorantz, musika kultuaz edo erdi-kultuaz, bada erreferentzia eta materialik ere –Nafarroako gorteak, Bizkaia eta Gipuzkoako Kapera-maisuak, etab...– baina herri-kantei dagokienez oso gutxi iritsi da gure egunetara.

Herriak, beraz, bere hizkuntzan kantatzen zuen, eta altxor musikal hori ahoz aho transmititu izan da mendeetan zehar, transmisio bide horrek aldaketa testual eta musikalak eragin dituelarik.

Bestalde, Erdi Aro eta Aro Modernoko musikarientzat herri-musikak ez du garrantzirik izan; beraz, jende honen musikan ez da herri-musikaren aztarnarik agertzen, ezta eliza inguruko musikagileen eskutik ere.

Eta, XIX. mendean Errenazimentuaren loraldian agertuko dira lehen (kantu zahar, doinu, dantza, etab.) bilketariak. Hala nola: Iztueta, Salaberri... Beranduago Gascue, eta nola ez, Aita Donostia eta R.M. de Azkue, beraien kantutegi baliotsuekin.

Bikote honek ondare ederra utzi du euskal kantagintzaren munduan murgildu nahi duenarentzat. Gaur egun biltzen hasi bagina, Azkuek eta Aita Donostiak bildutako laurdena ere ez genukeen aurkituko. Azkuek zioen bezala: “zenbat izan

zitezkeen orain mende bat lehenago bildu izan balira!". Kantua maite duen herriarentzat, eskertzeko lana burutu zuten, benetan.

Bai, Euskal Herria herri kantaria da, eta kantari izaten jarraitu nahi du. Baina nahi izatearekin ez du aski, kantak irakatsi eta kantatu egin behar dira eta.

Imanol Urbietak behar hori berehala somatu zuen, eta esker txarrekoak izango ginateke liburu honen sarreran bere lanaren handitasuna aipatuko ez bagenu. Egun ezagutzen diren haur kanta asko berak sortuak edota moldatuak izan dira. Doinu eta hitz alaiz kutsaturiko mundu aberats bat eraiki digu, horma sendoz eraiki ere.

Lan hau, bereziki, haurren musika irakaskuntzan ari direnei begira egin dugu; halere, kantua maite duen orori zuzendurik doa, ongi baitakigu kantuak ez direla bakan batzuen ahotan egoteko sortu.

Baina, orain arte egindako lanetan, funtsezkoa iruditzen zitzaigun hutsunetxoa somatu izan dugu; euskal kantu zaharretan erroturiko haur kanten bildumena hain zuzen ere, eta egun dagoenaren osagarri izan daitekeelakoan; horratx gure ekarpentxoa aipatutako arloa aberastu nahian.

Beraz, lan hau burutzeko, gure ustez altxor baliotsu diren kantutegi nagusietara jo, eta 40 kantuko bildumatxo sailkatua dakarkizuegu. Nolanahi ere, esku artean duzuen liburua ez da bilketa lan hutsa; izan ere, bilketaz gain, musika azterketa eta zenbait proposamen didaktiko egiten dugu eta.

Material hau prestatzeko orduan, hiru taldetan banaturik egin dugu lan: lehenengoak kantuak folklorearen ikuspegitik aztertu ditu, bigarrenak analisi musikala egin du, eta hirugarrenak proposamen didaktikoen prestaketari ekin dio.

1.2. FOLKLOREA

Kantuen ikuspegi folklorikoa aztertzerakoan, esan bezala, kantutegiak izan ditugu iturri nagusi. Zabala izan da esku artean erabilitako bibliografia, kantuen inguruko informazioa leku ezberdinetatik jaso nahi izan baitugu.

Kantuak sailkatu beharrak gaien araberako sailkapena egitera eraman gaitu; zazpi izan dira aukeratutako sailak:

1.- Sehaska kantak.
2.- Jolas kantak.
3.- Ohiturazko kantak.
4.- Kanta narratiboak.
5.- Ofiziozko kantak.
6.- Kanta satirikoak.
7.- Dantzarako kantak.

Beraz, sailkapen honetara egokitzen diren kantuak aukeratu ditugu geure bildumatxo hau osotzeko.

Aukeraketa burutzeko orduan, gaiari garrantzi handia eman badiogu ere, ez dugu hautaketa horretara mugatu. Kantuen jatorria oso kontutan izan dugu; izan ere, euskalki desberdinetako kantak bildu nahi izan ditugu, geure herriaren aberastasunaren adierazgarri izan daitezen.

Kantuak jatorrizko euskalkian emango ditugu, nahiz eta argibide bezala, batuerako bertsioa erantsi.

Erritmoari dagokionean, aniztasuna bilatu dugu; irakaskuntzan lagungarri izan daitekeen materiala sortzeko helburuari jarraiki, didaktika mailarako egokiak iruditu zaizkigun kantuak jaso ditugu.

Bestalde, liburu honen hartzaile zuzenak izango diren haurrak kontutan izan gabe, ezer gutxi izango dira gure lan eta nekeak. Haurrentzat gustuko izan daitezkeen kantuak bildu nahi izan ditugu, azken finean, beraiek izango baitira lan honen fruituak dastatuko dituztenak.

1.3. ANALISIA

Analisiaren zergati nagusienetariko bat, honek ematen duen aukera zabala da. Kantu baten inguruko ekintza edo proposamen didaktikoak egiteko, hots, dantzak, jokoak, ahotsa, hezkuntza musikala... analisi musikala behar-beharrezkoa da.

Gure lana sinplea da, eta oinarrizko atalak aurkezten ditugu kanta bakoitzeko: forma musikala, analisi erritmikoa eta analisi melodiko-armonikoa.

Halere, puntu batzuk argitu beharrean aurkitzen gara:

* Gehienetan, kantuen partiturak jaso ditugun moduan aurkeztuko ditugu. Dena den, kantatzerakoan, zeuek aukeratu zein tonalitatetan egin; hau da, transportatu egin ditzakezue.
  Haurrekin lan egiten baduzue, uste dugu FA, MI edo RE direla tonika egokienak.

* Proposamen gisa, kantu guztietan oinarrizko akorde batzuk jarri ditugu musika tresnekin laguntzeko.

1.4. DIDAKTIKA

Liburu honetan agertzen diren zenbait adibide musika eskoletan lantzeko egokiak dira; beste batzuk aldiz, eskolan lantzeko. Beraz bakoitzak har dezala egokien datorkiona edo molda dezala. Hemen ideia batzuk besterik ez dira ematen; gero bakoitzak erabil ditzala hobekien datorkion eran.

Koadroan liburu honetako kantuetan zehazki landutakoa seinalatu dugu, kanta batean aipatzen ez diren arloak ere landu daitezkeela jakinik. Horretarako, interesatzen zaigun arloa zehazten den beste kantu batera jo genezake pausoak ikusteko.

Egiten diren proposamenak irekiak dira; hau da, ez dago ariketetako pauso guztiak zehatz-mehatz jarraitu beharrik, irakasle bakoitzak moldatu beharko du bere gelako beharren arabera.

Bestalde, proposamen hauek ez dira kantekin, oro har, erabil daitezkeen bakarrak; aipatzen ez diren beste batzuk ere egokiak izan daitezke. Kasu hauetarako liburu honek kantu guztien analisia eskaintzen du, irakasle bakoitzak landu nahi dituen edukien arabera, kanten aukeraketa errazteko.

Liburu honetan, nahiz eta kanta bat lantzeko orduan ariketa zerrenda luze bat aurkitu, horrek ez du esan nahi ariketa guztiak kantu berberarekin egin behar direnik. Horiek kantak dituen aukera ezberdinak aipatzearren, eta beste kanta batzuekin egin daitezkeen zenbait ideia ematearren aurkeztu ditugu; hau da, kantak lantzeko orduan erabil genitzakeen zenbait ariketa mota azaltzearren. Pauso guztiak jarraitu nahi baditugu helburu berbera betetzen duten hiruren bat kanta hartu, eta hobe izango dugu ariketak hauen artean banatzea, bestela haurrak kanta berberarekin aspertu egin genitzake.

Hortaz, edukien zailtasuna eta ikasleen jakintza mailari begira egokitu behar ariketak.

Eduki ezberdinak lantzeko (melodia, erritmoa, e.a....), nahiz eta liburuan eredu bakarra eman, edo batere ez eman, komenigarria da irakasleak bere irudimenaz era askotan lantzea, haurrek errazago barnera dezaten, aldakortasun pertzeptiboa medio.

Esandakoaz gain, eta gure proposamenak oso aldakorrak direnez, haur batzuekin hobeto edo okerrago funtziona ditzakete; beraz, irakaslearen baitan dago bere errealitatera egokitzea.

Proposamen batzuek ikasleen artean, agian beste batzuek baino arrakasta handiagoa lor dezakete; kasu honetan ere, irakaslearen esku uzten dugu proposamen horien erabileraren maiztasuna.

Erritmo ariketetan, bestalde, esan beharra dago liburuan zehar askotan gorputz perkusioa erabiltzen dela. Baina erritmoa gorputz perkusioaz gain, edozer gauzaz eman daiteke: eskolako perkusio instrumentuez baliaturik, nahiz kaletik ekarritako kainabera, makila, harri eta abar erabiliz. Hau ere irakasle eta ikasleen esku dago. Hemen, batez ere, tinbre ezberdinak joko erritmikoak egiteko ematen digun aukera aprobetxatu.

Kantuaren estruktura aurkezten den adibide didaktiko gehienetan, kantua bera inplizituki lantzen da, bide ezberdinak erabiliz: erritmoa, melodia,...

Kantu batzuk lantzeko, ariketa zerrenda luze bat aipatzen da. Pauso guztiak jarraitu nahi izanik, ez da komeni ordu oso bat gauza berbera lantzen ematea, azkenerako ikasleei astun gerta baitakieke. Irakasle bakoitzak erabaki beharko du kantu hori horrela lantzeko zenbat klase edo zenbat denbora erabiliko duen, baina, dena dela, ez da komeni pauso guztiak egun berean egitea.

Oso kontutan eduki behar duguna ikaslearen adina da, eta bere gaitasun maila ariketa bat edo beste egiteko orduan.

Ariketak azaltzeko orduan, askotan instrumentu laguntzaile bezala pianoa aipatzen da, hori adibide gisa jarrita dago. Beste edozein instrumentu izan daiteke, akordeoia...

Aholku batzuk

Edozein hezkuntza arlotan, eta musikan batez ere, kontutan eduki beharreko oinarrizko araua: **lehenengo bizi, gero sentitu eta azkenean idatzi eta kontzeptualizatu.**

Ez da komenigarria umeak beti kasetarekin batera kantatzea. Hobe da kantua lehenago irakaslearekin ikastea, eta kaseta geroago entzutea. Garrantzitsuena norberaren bertsioa(ak) baloratzea da.

Kantaren tesitura umeen adinera egokitu behar da (zenbat eta gazteago altuago). Garrantzitsua da, baita ere, adinaren arabera, anbito egokia (zenbat eta gazteago txikiagoa) duten kantak aukeratzea.

Posible denean, komenigarria da baita ere, eduki mota ezberdinak batera lantzea, ikasleek arreta mantentzeko motibazio gisa, eta ikasle guztien ahalmena aprobetxatzeko.

Kantua ez dago egun batean osoki landu beharrik, egun ezberdinetan irakasteko sekuentziatzea da hoberena, eta ahal bada proposamen ezberdinen bidez.

Klasean ikaslearen arreta mantendu nahi badugu, ariketek laburrak, ugariak eta ezberdinak izan behar dute; bestela, aspertu egiten dira, eta arreta galtzen dute.

Edukiak lantzeko orduan, eduki bera era ezberdinetan lantzeak garrantzi handia du, honela ikasleak ekintza ezberdinak egiten ari den sentsazioa du, baina aldi berean, gauza bera lantzen ari da. Era honetan lan egiteak zenbait abantaila dakartza ikaslearentzat; ariketa ezberdinak direnez, ez da aspertzen eta era batera eginez ongi ulertu ez badu, beste era batera landuz hobeto uler dezake.

Azkenik, nahiz eta irakasleak klasean edukiak lantzerakoan ordena bat ezarri, ikasleen erantzunaren arabera, ordena hori alda aldatu egin daiteke.

Nola erakutsi kanta berri bat

Ondorengo hauek oinarrizko arau batzuk besterik ez dira. Liburuan zehar, adibide konkretuen bidez lantzeko, zenbait modu berezi aurkeztuko da.

– Lehenengo eta behin, kantua den bezala, osorik aurkeztu.

– Gero, letra buruz ikasteko zaila bada, musika gabe eta zatika landu. Letraren zatiketa egiterakoan, esanahiaren arabera logikoena dena egingo da. Lan honetan lehenengo irakasleak bakarrik esango du, eta gero ikasleek errepikatu egingo dute. Gero eta zati luzeagoak landuko dira, eta azkenik letra osoa.

– Letra erritmoarekin lotuta landu, lehenengo zatika eta gero osorik.

– Melodia soilik edo letrarekin batera (zailtasunaren arabera) zatika eta gero osorik, letrarekin egin den antzera, zati antzekoak argi ezberdinduz landu, eta sailak ondo menperaraziz.

– Kantuaren interpretazio ezberdinak egin: abiadura ezberdinak, fuerte, pozik, ...

KANTUA	ORRIALDEA	TESTUA	ERRITMOA	MELODIA	DRAMATIZA-ZIOA	INSTRUMEN-TAZIOA	DANTZA psikomotrizi	ENTZUNAL-DIAK
Loa loa	18	Azalpena	Pultsua erritmoa	Esaldiak melodia	Itzalak			
Abulun Abuluna	21					P. mugatua (bordoia) P. mugagabea		
Txalopin txalo	31		Pultsazioa Erritmoa					
Txalito txalo	36		formula erritmikoak	Interbaloak				
Joan nintzen merkatura	71	Seriazioa			jolasak			Hotsak
Txakurra eta katua	87	Ipuina	Pultsua, azentua …		Antzezpena		Jolas dantza	
Belea eta axeria	99	Ipuina			Txontxongiloa		Jolas dantza	
Arrain Saltzailea	117		Diktaketa	Forma Tonu aldaketa				
Iruten ari nuzun	123					P. mugatua (akordeak) P. mugagabea		
Landan eder aitzurra	131					Perkusio mugagabea		
Adizan Gabriela	137		Formula erritmikoa	Modalitatea				
Aitak eman daut dotea	148		Ostinatoa			Perkusio mugagabea		
Praka zar txikitxoa	151	Euskalkiak						
Ai Peru Peru	155			Forma			Jolas dantza	

2. KANTUAK (sailkapenaren arabera)

2.1. SEHASKA KANTAK


2.1.1. Sarrera

Sehaska kantak lo eragiteko kantak dira. Haurraren loa eragiteko giro epel eta xamurra sortu nahi horretan lagungarri zaizkigu kantu mota hauek berez duten erritmo motela, errepikakorra, monotonoa; lagungarri era berean melodiaren erraztasuna, hitz sinpleen goxotasuna...

Zenbait lekutan *Sehaska kantak* esan beharrean bestelako izendapena erabiltzen dute, adibidez: Dringilin-dranguak –sehaskaren mugimenduak sorturiko hots onomatopeikoak direla eta asmatutako hitza–, *Obabakoak,* edota Baztan inguruan erabiltzen duten *Maroak* –goxoa– hitza.

2.1.2. Kantuak

Mox mox katuko (AZKUE; *Cancionero popular vasco*)





Mox, Mox, katuko	*Mox, Mox, katuko,*
noiz aiz eltzeko	*noiz haiz heltzeko*
aur edertxo (i)onekin jostatzeko?	*haur edertxo honekin jostatzeko?*
Erpe zorrozko,	*Erpe zorrozko*
oik iretzako	*horiek hiretzako*
gorde itzak aurrak negar ez eiteko!	*gorde itzak haurrak negar ez egiteko!*

Ergobian (Astigarraga) Saturnina Otegik abestu zuen.

ANALISIA

MOX MOX, KATUKO

FORMA: A A'



MELODIA



Tonika: ***Re***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa/eta Hirukoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄽 𝄾
Konpasa: 2/2. 3/4.

Loa-loa (GERENO, L.; *Euskal abestiak*)





Loa-loa txun txurrun berde,
loa-loa masusta,
aita gurea Gasteizen da,
ama mandoan artuta.
Aita gureak diru asko du,
ama bidean salduta.
Loa-loa.

Loa-loa txun txurrun berde,
loa-loa masusta,
aita gurea Gasteizen da
ama mandoan hartuta.
Aita gureak diru asko du,
ama bidean salduta.
Loa-loa.

ANALISIA

LOA-LOA

FORMA: A B D A' B' D'



MELODIA



Tonika: ***Si***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M***
Letrak: ***Silabikoa melisma txikiekin***
Ahots tartea: ***La3-Fa#4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa (Hasierako esaldia ezik beste guztiak anakrusikoak)***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Laukoa eta hirukoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak:
Konpasa:

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Testoa.

Letra aldetik, ume txikientzat gogorregia da.

Nagusiekin letra aztertu eta komenta daiteke (garaia, emakumearen egoera ...)

Erritmoa.

- Pultsazioa, tenpoa eta erritmoa tresna ezberdinez markatu: batzuk erritmoa, beste batzuk pultsazioa, hirugarren talde batek tenpoa, azpizatiketak egin ...
- Erritmoa soilik markatu, musikarik gabe.
- Letra gehitu.
- Esaldiak ezberdindu, psikomotrizitate ariketa baten bidez. Kantua lau esaldiz osaturik dagoenez, esaldi bakoitza mugimendu ezberdinez adieraziko dugu, mugimendu horiek beraiek inprobisa ditzakete edo honako hau egin: korroan astiro ibiliaz, suabe-suabe kantatu eta esaldi aldaketetan:
    - ° Lehenengoan erlojuaren norabidea jarraituz ibili.
    - ° Bigarrenean bestalderantz joan.
    - ° Hirugarrenean besoak goraka igoaz, korro barrurantz joan.
    - ° Laugarrenean besoak jaitsiaz kanporantz jo.

Doinua

Ahotsak garrantzi handia du, sehaska kanta baita, beraz kontutan izan behar dugu matizek duten garrantzia.

- Melodia kantatu letrarik gabe.
- Notekin kantatu.
- Denari letra gehitu.
- Modu minor melodikoan dagoenez, hau adierazten duten motiboak nabarmenduko ditugu. Horretarako, tonika, dominantea eta subtonika markatuko ditugu. Adibidez, instrumentu baten laguntzaz hiru akorde horiek adieraziko ditugu eta beraiek aldaketa bakoitza mugimendu berezi baten bidez adierazi beharko dute, edo beraiek xilofono edo metalofonoen bidez bordoia erabiliz, kantua interpretatu.


Dramatizazioa.

Itzal edo txontxongilo bidez antzeztu.

Itzalak: Kartoi batean behar dugun irudiaren silueta marraztu eta ebaki, gero makila batean erantsi. Ondoren, silueta mugitu behar den eskenatokia prestatu, honetarako albo batetik bestera izara bat zabaldu eta atzeko aldean foko bat jarri. Itzalak lortzeko, silueta maindire eta fokoaren artean mugituko da.

Abulun, abulun, abuluna (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*, I Tomoa, 8. zenb., 13-14.or.)





Abulun, abulun, abuluna,
hauxe duzu haur ona.
Hontaz eros nezake
Parise eta Baiona.

Abulun, abulun, abuluna,
hauxe duzu haur ona.
Hontaz eros nezake
Paris eta Baiona.

Kanta hau Nafarroako Luzaiden jasoa da.


ANALISIA

ABULUN, ABULUN, ABULUNA

FORMA: A B



MELODIA



Tonika: ***La***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 

Isilune irudiak: 𝄽 𝄾
Konpasa: 𝄜

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Instrumentazioa

Bordoi sinple batez instrumentatu dugu kantu guztia. Kantua lantzen hasi aurretik, ikasleei instrumentazioaren pentagrama bat edo bi azterrarazten badiegu, nahiz eta ez jakin zer diren bordoia edo akordeak, berehala konturatuko dira hiru egitura armoniko bakarrik errepikatzen direla: do-sol, fa-do eta sol-re. Horretaz ohartu ondoren, nahi izanez gero, bakoitzak interpretatu behar duen instrumentuaren lerroa aztertu eta gero akorde horien aldaketak non diren belarriz antzematen saia daiteke. Oso zaila suertatzen bada partiturari jarraiki jo.

Hori guztia bizi eta esperimentatu ondoren bordoia eta akordeen azalpen teoriko txiki bat eman geniezaieke. Beti kontutan izan, musika lehendabizi bizi, esperimentatu egin behar dela, eta gero kontzeptualizazioetan sartu.

Instrumentazioko pentagrama guztiak aldi berean egitea ez da baharrezkoa. Ikasleen mailaren arabera irakasle bakoitzak bere gelara egokitzen saiatu beharko du: zein pentagrama, zenbat ...


ABULUN ABULUN ABULUNA




G
C
G
C

Lotxo (AZKUE; *Cancionero popular vasco*, 171. zenb., 29. or.)





Lotxo engañadore
falso traidorea.
Lotxok engañako dau
bai gure umea.

Lotxo engainadore
faltsu-traidorea.
Lotxok engainatuko du
bai gure umea.

Azkuek Aramaion Gabriela Altuberengandik jaso zuen.

ANALISIA

LOTXO

FORMA: A A'



MELODIA




Tonika: ***Fa***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun M***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Fa#3-Do#4***


ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 𝄴

Margulili artean (AZKUE; *Cancionero popular vasco,* 173. zenb., 30. or.).





Margu-lili-artean
erleak naro ebiltan dra;
korren lilia gore aurrak
ñola ezin doke murtxa.
Erleak aurkoi bazrade,
fanzte beste lilitra.

Mazusta lore artean
erleak sarritan ibiltzen dira;
horren eztia gure haurrak
ezin duenez dastatu.
Erleak haurkoiak bazarete
zoazte beste loreetara.

Oil. oil erle kuek
kartxeritik gain kartra;
larre-liliak ostadar
margo poliz xaztan dra:
oli-ta dundukoi dud
loxka dagon nore aurra.

Uxatu, uxatu erle hauek
kartxiritik (baratzetik) gainera (gora)
larre-loreak ostadarraren
margo politez janzten dira:
hori eta urdin zalea duk
lotan dagoen nire haurra.

Mariano Mendigatxarengandik Bidankozen (Erronkarin) jasoa. Letra ez da jatorrizkoa.

ANALISIA

MARGULILI ARTEAN

FORMA: A B A'



MELODIA



Tonika: ***Mi***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3- Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako errtimoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 𝄴

2.2. JOLAS KANTAK


2.2.1. Sarrera


Kanta sail honen izendapenak dioen moduan, talde honetan helburu moduan jolasa duten kantak jaso ditugu.

Kantu baten laguntzaz girotzen diren jolas hauetan haurren hizkuntzaren xamurtasun eta freskotasuna isladaturik ikus ditzakegu. Ederra da antzinako haurren ahotsen oihartzuna entzun ahal izatea.

2.2.2. Kantuak

Iru bortzeko (AZKUE; *Cancionero popular vasco*)





Iru bortzeko amabortz dira,	*Hiru bosteko hamabost dira,*
amabortzen kontu aundia	*hamabosten kontu handia*
naizu pinta bat jokatu	*nahi duzu pinta bat jokatu*
amabortz direla? amabortz direla?	*hamabost direla? hamabost direla?*

Baztaneko Bozate herrian Graciosa Elejaurenak abestu zuen.


ANALISIA

IRU BORTZEKO

FORMA: A B (KODA)



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Re4***


ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa eta Hirukoa***

Erritmo landuak: ♫ | ♫ | ♩. | ♩ ♪ |
Konpasa: 2/4. 3/4.

Txalopin txalo (ETNIKER; *Juegos infantiles en vasconia*)





Txalopin txalo xoxua an dago;
xoxua mizpiru gañian dago.
Ta nai badu, bego,
ta nai badu, bego;
zapatatxo berrien esperoan dago.

Txalopin txalo xoxoa han dago;
xoxoa mizpiru gainean dago.
Eta nahi badu, bego,
eta nahi badu, bego;
zapatatxo berrien esperoan dago.

Etniker taldeak Nafarroan bildutako bertsioa.

ANALISIA

TXALOPIN TXALO

FORMA: A B A' B'



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasiera erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaera erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 3/8

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Erritmoa

Honelako kantuak, batez ere haur hezkuntzarako dira, eta beraiei zuzendurik azalduko ditugu.

Nahi izanez gero, lehenik letra adierazteko espresio era ezberdinak erabiliz irakats daiteke (melodiarik erabili gabe).Adibidez, negarrez, barrez, lotsaturik, ahots lodiz, mehez... Letra lantzeko orduan erritmoa errespetatzen badugu, hobeto.


Gero, ikasi dugun letra horren erritmoa txaloz jo genezake edo zuzenean melodia sartuta ere egin daiteke. Erritmoa lantzeko txaloak ez ezik, perkusio--instrumentu txikiak ere oso aberasgarri suertatzen dira.


Ikusten dugunean haurrek kantaren letra, melodia eta erritmoa nahiko ongi barneratua dutela, hori lortzeko erabili ditugun zenbait baliabideri egitura bat ematen saiatuko gara. Adibidez:

- Eskutxoak atzean gorderik, kantua abestuko dugu.
- Oraingoan ahoa isilduko da eta eskuek kantatuko dute; hau da, ahoz letraren keinua bakarrik egingo dugu (adinaren arabera eta denborarekin ahoaren keinua kentzen joan erritmoa bakarrik gera dadin) eta txaloz emango dugu abestiaren erritmoa.
- Ahoak eta eskuek kantatuko dute, hau da, txaloz erritmoa eramango dugu eta aldi berean abestu egingo dugu.
- Oraingoan ahoak kantatuko du, baina kontuz, magalean pultsazioa emango baitugu. Adin honetan abesti baten erritmoa eta pultsazioaren kontzeptuak ulertzea oso zaila da. Beraz, saiatu gutxienez imitazioz ongi egin dezaten.
- Berriro pultsazioa landuz abestuko dugu, baina oraingoan bikoteka, ondoko lagunarekin ; txalo bat norberak ,txalo aurreko lagunari ...

Azkenik, korro handi batean guztiok eskutik helduta, saltoka abestuko dugu.

Talotxin talotxin. (ETNIKER; *Juegos infantiles en Vasconia*, 93-94. or.)





Talo, talotxin,
gure aurrak bortz otsin
zato, amatxi,
opil aundi batekin,
sopaz ase gaitezin,
guziok arekin.

Talo, talotxin,
gure haurrak bost otsin
zatoz, amama,
opil handi batekin,
sopaz ase gaitezen
guztiok harekin.

Abesti hau Saran jasoa da.


ANALISIA

TALOTXIN TALOTXIN

FORMA: A B (Koda)



MELODIA




Tonika: ***Do***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Do3-Do4***


ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: ♫ | ♩
Isilune irudiak: 𝄽
Konpasa: 𝄴

Txalito txalo. (ETNIKER; *Juegos infantiles en Vasconia*, 92. or.)





Txalito txalo,
txalopin txalo,
txoritxua mispillua
gañian dago;
badago, bego,
zapatatxo berrixeri
begira dago.

Txalito txalo,
txalopin txalo,
txoritxua mizpiraren
gainean dago;
badago, bego,
zapatatxo berriari
begira dago.

ANALISIA

TXALITO TXALO

FORMA: A B A' B A'



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 4dun J, 5dun gutxitua***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Fa#3-Do4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***
Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄽
Konpasa: 𝄴

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Abesti honek intonazio eta erritmo zailtasunak ditu. Horregatik, komenigarria da abestia ikasi aurretik ariketa berezi batzuk egitea. Batez ere, gure asmoa partitura irakurketa lantzea bada, eta horretarako abestia partituratik zuzenean lantzea erabakitzen badugu. Honela, bi arlo hauek lantzeaz gain, abestia ondo abesteko bidea jartzen da.

Erritmoa


Ondoko erritmo ariketa hauen bidez, pultsazioa hiru edo lau zatitan banatzearen ezberdintasunaz (abestian agertzen diren barianteetan) konturatzea eta egiteko gai izatea lortu nahi da.

– Oinekin pultsua markatuz eta zenbakiak edo silaba bat ahoskatuz bat, bi, hiru edo lau kolpe markatuko ditugu pultsu barruan, ordena ezberdinak jarraituz.



– Konpas hauek aurreko ariketan markatu diren eran landu, lehenengo hirukotxoak (a), eta kortxeaerdiak (b) eginez gero. Baina gero, era ezberdinetan tartekatu batzuk eta besteak. (Kontuz a-2 eta b-2rekin, zeren eta oso erraz nahasten dira)

a-1



b-1



a-2



b-2



– Gero partituraren irakurketa erritmikoa egin.

Melodia

– Abestian agertzen diren notekin, eta hauen tonika errespetatuz, melodia ezberdinak inprobisatuko dira; lehenengo, irakasleak zuzendutakoak, eta gero ikasleek jolas giroan asmatzen dituztenak.



– Landu bitarte (interbalika) ariketa egoki batzuk, abestian agertzen diren bitarte zailenak menperatu ahal izateko. Adb:




2.3. OHITURAZKO KANTAK


2.3.1. Sarrera

Sail honen barruan urteko garai ezberdinetan edota egoera berezietan urtetan zehar kantatuak izan diren abestiak bildu nahi izan ditugu: Gabon garaiko abestiak, eske kantak, egun seinalatuetan entonaturiko doinuak... *Ohiturazko kanta* bihurtu dituzte iragandako urte luzeek eta ohiturari esker heldu dira gure egunetara.

2.3.2. Kantuak

Aingeru batek dio. (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*, I Tomoa, 40 zenb., 62-63. or.)





1.- Aingeru batek dio
goigora basuan,
Aurtxo bat jayo dela
bart gure auzoan.
Ardua edan eta
lo batez zentzatu,
Aur uni biar diogu
ederki kantatu.

1.- Aingeru batek dio
goi-goian basoan,
Haurtxo bat jaio dela
bart gure auzoan.
Ardoa edan eta
lo batez zentzutu,
Haur honi behar diogu
ederki kantatu.

2.- Belengo portalian
Jesus nuen ikusi,
Nere pena guziak
joan ziren igesi.
Atozte, bai, artzayak,
atozte nigana;
ganaduak utzirik,
goazen Belenera.

2.- Belengo portalean
Jesus nuen ikusi,
nire pena guztiak
joan ziren ihesi.
Zatozte, bai, artzainak,
zatozte nigana;
ganaduak utzirik,
goazen Belenera.

Baztaneko Arroiz herrian bildu zuen Aita Donostiak 1911. urteko abenduaren 27an. Gabon garaiko abesti hau Maria Irurzunek kantatu zuen.

ANALISIA

AINGERU BATEK DIO

FORMA: A A' B A'



MELODIA




Tonika: ***Re***
Modua: ***minor naturala (eolikoa)***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letra: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Re4***


ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: ♩♫♫ ♩♪ ♩
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 𝄽.

Aur eder. (*Oihuka,* 6. zenb., 7. or.)





1.- Aur eder baten bila
gabiltza zoratzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko emen.

Jaungoikoaren erri
maite Jerusalen
esan zaiguzu laister
Jesus nun jaio den.

1.- Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen
eta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.

Jaungoikoaren herri
maite Jerusalen
esan iezaguzu laster
Jesus non jaio den.

2.- Izar bat agertu da
dirdiraz zeruan
kinuka ari zaigu
gabon gaberdian.

Jaungoikoaren....

3.- Opariakin gatoz
izarra gidari,
eman nai dizkiogu
gaur bertan berari.

Jaungoikoaren....
4.- Estalpe zar batean
dago otzez dardaraz;
azkar nai degu Jesus
berotu arnasaz.

Jaungoikoaren....

2.- Izar bat agertu da
dirdiraz zeruan
keinuka ari zaigu
gabon gauerdian.

Jaungoikoaren...

3.- Opariekin gatoz
izarra gidari,
eman nahi dizkiogu
gaur bertan berari.

Jaungoikoaren...
4.- Estalpe zahar batean
dago hotzez dardaraz;
azkar nahi dugu Jesus
berotu arnasaz.

Jaungoikoaren...

ANALISIA

AUR EDER

FORMA: A A B D



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M,3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa melisma txiki batzuekin***
Ahots tarteak: ***Fa#3-Sol4***


ERRITMOA

Pultsua: 
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Hirukoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak:
Konpasa: 

Aita San Antonio. (ANSORENA; Euskal kantak, 2.1. zenb., 35. or.)





1.- Urkiolara joan
zapatak urrutu,
aita San Antoniok
berriak eingoitu.

2.- Urkiolara joan
Mañaritik gora,
trokotza sartu nauen
eperditik gora.

3.- Askok egiten dautso
San Antoniori,
egun batean joan
bestean etorri.

4.- Aita San Antonio
Urkiolakoa,
askoren bihotzeko
Santu debotoa.

5.- Akordatzen al zara
zer egin genduan,
Urkiola gaineko
pagoen onduan.

1.- Urkiolara joan
zapatak urratu,
aita San Antoniok
berriak egingo ditu.

2.- Urkiolara joan
Mañaritik gora,
trukutza sartu nuen
ipurditik gora.

3.- Askok egiten dio
San Antoniori,
egun batean joan
bestean etorri.

4.- Aita San Antonio
Urkiolakoa,
askoren bihotzeko
Santu debotoa.

5.- Akordatzen al zara
zer egin genuen,
Urkiola gaineko
pagoen ondoan.

Herrikoia den abesti hau J.I. Ansorenak argitaratu du. Ekar dezagun lerro hauetara Ansorenak egindako oharra: "Bi doinu bildu ditut hemen batera. Aurrenekoa, sei-zortziko konpasean dagoena, albokaz jotzen den kalejira da. Horregatik parterik handiena hitzik gabekoa da (laralaz egiten da). Bigarrena, bi lauko konpasarena, kanta ezaguna da.

Urkiolako erromeria eta gizon eta andregaien bila joate hori oraindik ere bizi--bizi dago. Urtero ekainaren hamahirugarrenean ospatzen dute, San Antonio egunean.

Urkiola gaina Durangaldean dago, Otxandio gainean eta Anbotoko Haitzetik gertu, Gasteizeko errepidearen ondoan".

ANALISIA

AITA SAN ANTONIO

FORMA: A (1. zatia) A B B A (2. zatia) A' B B' A (3. zatia) B



MELODIA





Tonika: ***Fa-Re***
Modua: ***Maiorra-minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa melisma txikiekin***
Ahots tartea: ***Do#3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua:
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Femeninoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra/Bitarra***
Azentua: ***Hirukoa/Bikoa***
Erritmo landuak: 
Konpasa: 

Eguen zuriko eguna. (GEREDIAGA ELKARTEA)





1.- Eguen zuriko eguna,
Jaungoikoak berak egiña.
Eskola mutillak ibiltteko
limosna on baten billa.

2.- Hor goijen goijen goldie
haren ganien belie.
Etxe honetako nagusi jauna
nekazari langillie.

3.- Poltsan ba dittut errial bi
batak bestia dirudi.
Etxe honetako etxekandriak
Ama Birjiña dirudi.

4.- San Kasiano obispua
eskola maixu jakituna.
Jesukristoren fediagaitik
odola eman ebena.

1.- Ostegun zuriko eguna,
Jaungoikoak Berak egina.
Eskola mutilak ibiltzeko
limosna on baten bila.

2.- Hor goian-goian goldea,
haren gainean belea.
Etxe honetako nagusi jauna,
nekazari langilea.

3.- Poltsan baditut erreal bi
batak bestea dirudi.
Etxe honetako etxeko andreak
Ama Birjina dirudi.

4.- San Kasiano obispoa,
eskola maisu jakituna;
Jesukristoren fedeagatik
odola eman zuena.

5.- Santu hau bitartez dala	*5.- Santu hau bitartez dela,*
ezeizu izan okerrik.	*ez ezazu izan okerrik.*
Orain bagoaz hemendik eta	*Orain bagoaz hemendik eta,*
agur danori eginik.	*agur, denoi eginik!*
6.- Emongo bozu emoizu	*6.- Emango baduzu emaizu,*
bestela ezetz esaizu.	*bestela, ezetz esaizu.*
Ate ondoko haiziok hartzen	*Ate ondoko haizeak hartzera*
amak ezkaitu bialdu.	*amak ez gaitu bialdu!*
7.- Etxeko andre mondrongo	*7.- Etxeko andre mondrongo*
hik ezton asko emongo.	*hik ez dun asko emango*
Hik emotunan limosniagaitik	*hik ematen dunan limosnagatik*
etxunau asko edango.	*ez dinagu asko edango!*

Abesti hau 1978. urtean Anton Mari Aldekoa-Otalorak Garain, Berrizen eta Zaldibarren bildu zuen. Eske kantu bat da. Abesti honek Abadiñon bariante bat du.

Ohar historikoei dagokienez hauxe esan dezakegu:

San Kasiano maisuen patroia eskolaumeak eskean ibiltzeko ihauteri garaian kokatua dago Durangaldean. Oraintsu, ia-ia gaur egun, Garain, Berrizen eta Zaldibarren beste kopla hauek erabili izan dira Eguen Zuri batzeko.


Kopla hauetan San Kasiano aipatzen da. Azkuek bere Euskalerriaren Yakintza liburuan obispo hau maisuen patroia ei zela diosku eta Nabarnizen, beronen egunean -abuztuan- eskolaumeak eskean urteten zutela dio. Inguru haietan maisu edo abade egondakoren batek sartu ete zuen San Kasiano gure Eguen Zuri honetan?

Abadiñokoaren alderantziz doinua ere ikasia eta solemneagoa dugu. Azkuek herri hauetan jaso zuenetik diferenteak. Jende nagusia oroitzen da aurreragokoek beste bat erabiltzen zutela baina ez dute gogoratzen zein. Guri heldu zaiguna hemen dugu eta hor duzue.

ANALISIA

EGUEN ZURI

FORMA: A B



MELODIA



Tonika: ***Sib***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 4 dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Do3-Do4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Azefaloa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Hirukoa***

Erritmo landuak: 𝅘𝅥𝅯 𝅘𝅥𝅮 𝅘𝅥𝅮 ♩
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 3/4

San Joan de la Porta Letaina (UEU; *Doinu zaharren ingurutik*, 12. zenb., 33. or.)





San Joan de la Porta Letaina
bart arratsaldian
hamalau atso tronpeta jotzen
motrolu baten gainean.

San Joan de la Porta Letaina
bart arratsaldean
hamalau atso tronpeta jotzen
motroilu baten gainean.

Gora gora gora San Joanetan	*Gora gora gora San Joanetan*
jantzan egingo (du)gu Ipar haizetan.	*dantzan egingo dugu Ipar haizetan.*
U JU JU San Joanera goaz gu.	*U JU JU San Joanera goaz gu.*
Geure herriko ekandu onak	*Geure herriko ohitura onak*
garbi garbirik isteko	*garbi-garbirik uzteko*
berba loi eta dantza zikinak	*hitz lohi eta dantza zikinak*
bota daiguzan betiko.	*bota ditzagun betiko.*
Geure gora gora garbitasuna	*Geure gora gora garbitasuna*
aupa bizkor egin suari bira	*aupa bizkor egin suari bira*
U JU JU San Joanera goaz gu.	*U JU JU San Joanera goaz gu.*
Deune Jone eltxo ta sorgin	*Deune Jone eltxo ta sorgin*
guztiak dira erretan	*guztiak dira erretzen*
soloetako landara ona	*soroetako landare onak*
garbi geratu daitezan.	*garbi geratu daitezen.*
Gora gora San Joanetan	*Gora gora San Joanetan*
jantzan egingo (du)gu Ipar haizetan	*dantzan egingo dugu Ipar haizetan*
U JU JU San Joanera goaz gu.	*U JU JU San Joanera goaz gu.*

1988. urteko udaberrian J.R. Arbek eta Pilare Calverak Zeanurin jaso zuten Prantziska eta Simonari entzun ondoren. Hauek gurasoengandik ikasi zuten.

ANALISIA

SAN JOAN DE LA PORTA LETAINA

FORMA: A B D E



MELODIA




Tonika: ***La***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa eta hirukoa***
Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄽
Konpasa: 𝄴 𝄵

Sta. Ageda. (Eskuizkribua)





1.- Atea dago kristalez,
ate burua lizarrez.
Etxe hontako uzaba jauna:
kantauko dogu edo ez?

2.- Uzaba jauna aurrera,
erreberentzia lurrera.
Lotza garela etorri gara
Jauna berorren aurrera.

3.- Eder eleizan liburu,
usoak haren inguru.
Etxe hontako txiker-handiok
paradisuan aingeru.

1.- Atea dago kristalez,
ate-burua lizarrez.
Etxe honetako ugazaba jauna:
kantatuko dugu edo ez?

2.- Ugazaba jauna aurrera,
erreberentzia lurrera.
Lotsa garela etorri gara
Jauna berorren aurrera.

3.- Eder elizan liburu,
usoak haren inguru.
Etxe honetako txiki-handiok
paradisuan aingeru.

4.- Oles da oles atean,
nor dabil denbora honetan?
Bost edo sei mutil alkar harturik
Santa Ageda kantetan.

5.- Aitaren eta Semearen,
Espiritu Santuaren,
Jaungoikoaren argitasunaz
agertzen gara gu hemen!

6.- Hor goien goien pinue,
haren gainean mirue.
Etxe hontako etxeko-andrea
alargun bedeinkatue.

7.- Goiko mendian otea,
ahuntzak jan dautso puntea.
Etxe hontako dama gazteak
baturik dauko dotea.

8.- Hortxe goien iturri,
ure txorrotik etorri.
Etxe hontako dama gaztea
askok gure jok erosi.

9.- Belea dago atxean,
beretzat zori gatxean.
Arantza baltza sartuko al jako
atzeko zulo baltzean.

10.- Horra hor goiko landetan,
eperrak dabiz kantetan.
Etxe hontako uzaba jauna
bera beteko kakatzan.

4.- Oles eta oles atean,
nor dabil denbora honetan?
Bost edo sei mutil elkar-harturik
Santa Ageda kantatzen.

5.- Aitaren eta Semearen,
Espiritu Santuaren,
Jaungoikoaren argitasunez
agertzen gara gu hemen!

6.- Hor goian goian pinua,
haren gainean mirua.
Etxe honetako etxeko-andrea
alargun bedeinkatua.

7.- Goiko mendian otea,
ahuntzak jan dio punta.
Etxe honetako dama gazteak
baturik dauka dotea.

8.- Hortxe goian iturri,
ura txorrotik etorri.
Etxe honetako dama gaztea
askok gura du erosi.

9.- Belea dago haitzean,
berarentzat zori gaitzean.
Arantza beltza sartuko al zaio
atzeko zulo beltzean.

10.- Horra, hor goiko landetan
eperrak dabiltza kantatzen.
Etxe honetako ugazaba jauna,
bera beteko kakatzan.

1.- Isilik dago nagusi jauna
ia ba libertadea.
Bedeinkatua izan dadila
etxe hontako jentea.

2.- Etxe hontako andra zabala
leku oneko alaba.
Hortxe bidean enteratu naz
limosnagile zarala.

3.- Alkate jaunagaz egon gara
atzoko arratsaldean;
libertadea geugaz daukagu
ibiltzeko bakean.

4.- Ibiltzen ez bagara bakean
geure buruen kaltean.
Alkate jaunak sartuko gaitu
presondegi ilun batean.

5.- Damatxo gazte konponidua
zure kolore gorria.
Zure matrailak iduritzen dau
krabelinaren orria.

6.- Krabelinaren orriarekin,
larrosa maiatzekoa;
hementxe nago zeuri begira
damatxo bihotzekoa.

7.- Esku batean argia dakar
bestean lukainke parea;
altsoa ere gora dakar ta,
han be dozena arrautzea.

8.- Kataniako huri handian
zer gauza jazo zirean
Berrehun eta berrogeieta
hamaika garren urtean.

9.- Kataniako jauregi baten
lore eder bat jaio zan.
Palermon zegon errege bera
lora horregaz gustau zan.

1.- Isilik dago nagusi jauna
ia ba, libertatea.
Bedeinkatua izan dadila
etxe honetako jendea.

2.- Etxe honetako andre zabala
leku oneko alaba.
Hortxe bidean enteratu naiz
limosnagile zarela.

3.- Alkate jaunarekin egon gara
atzoko arratsaldean.
Libertatea geurekin daukagu
ibiltzeko bakean.

4.- Ibiltzen ez bagara bakean
geure buruen kaltean.
Alkate jaunak sartuko gaitu
presondegi ilun batean.

5.- Damatxo gazte kunplimentua,
zure kolore gorria.
Zure maitralak iduritzen du
krabelinaren hostoa.

6.- Krabelinaren hostoarekin,
larrosa maiatzekoa.
Hementxe nago zeuri begira
damatxo bihotzekoa.

7.- Esku batean argia dakar
bestean lukainka parea;
altzoa ere gora dakar ta
han ere dozena arrautze.

8.- Kataniako hiri handian
zer gauza jazo ziren,
Berrehun eta berrogeita
hamaikagarren urtean.

9.- Kataniako jauregi baten
lore eder bat jaio zen.
Palermon zegoen errege bera,
lore horrekin gustatu zen.

10.- Baina ez zegoen larrosa hori
Kintzianorentzat egina.
Zeruan zeukan bere senarra
Jesukristo gure jauna.

11.- Jesukristoren esku samurrak
agoniako orduan.
Lagunduko dautso pobrezaleari
ta sartu bere erreinuan.

12.- Orain hemendik bagoaz eta
agur dautsugu gogotik.
Agate deuna bitarte dela
ezeizu izan dongerik.

10.- Baina ez zegoen larrosa hori
Kintzianorentzat egina.
Zeruan zeukan bere senarra
Jesukristo gure jauna.

11.- Jesukristoren esku samurrak
agoniako orduan,
lagunduko dio pobrezaleari
ta sartu bere erreinuan.

12.- Orain hemendik bagoaz eta,
agur dizugu gogotik.
Agate deuna bitarte dela
ezegizu izan dongerik.

1990. urtean Zeanurin J.R. Arbek Pedro Arberengandik jaso zuen. Era berean, Pedro Arberi amamak erakutsi zion abestia.

ANALISIA

SANTA AGEDA

FORMA: A B A



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letra: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Hirukoa/Bikoa***

Erritmo landuak: 𝅘𝅥𝅮 | ♩ 𝅘𝅥𝅮 ♩.
Isilune irudiak: 𝄽 𝄾
Konpasa: 3/2 2/2

Ai, au gabaren zoragarria. (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*, I tomoa, 36. zenb., 58-59. or.)





Ai, au gabaren zoragarria!	*Ai, hau gauaren zoragarria!*
Jesus jaio da Belenen.	*Jesus jaio da Belenen.*
Etxe onetan sartu ote da	*Etxe honetan sartu ote da*
billa gabiltza beraren.	*bila gabiltza beraren.*
Belengo ikulluko	*Belengo ikuiluko*
ate zabaletan,	*ate zabaletan,*
otzez ikaraz dago	*hotzez ikaraz dago*
Jesus lastuetan.	*Jesus lastoetan.*
Astua eta idia	*Astoa eta idia*
dauzka aldamenean	*dauzka aldamenean*
arnasaz berotzeko	*arnasaz berotzeko*
oztutzen danean.	*hozten denean.*

Abesti hau 1913. urtean Seguran jaso zuen Aita Donostiak Isaac López de Mendizabalen ahotik entzun ondoren.


ANALISIA

AI, AU GABAREN ZORAGARRIA

FORMA: A A' B D E F



MELODIA



Tonika: ***Fa***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Fa3-Fa4***

ERRITMOA

Pultsua: 
Hasierako erritmoa: ***Azefaloa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Hirukoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 
Konpasa: 

2.4. KANTA NARRATIBOAK


2.4.1. Sarrera

Kantu narratiboak bertsoz egindako narrazio herrikoiak dira. Hauetan, batzuetan errealitatetik eta beste batzuetan fantasiaren mundutik jasotako gertaerak kontatzen dira.

2.4.2. Kantuak

Ama batek. (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*)





1.- Ama batek othe sorthia zütü?	*1.- Ama batek sortu ote zaitu?*
Ederra zirela itxura badüzü.	*ederra zarela itxura baduzu.*
Ezta zelietan izarrik agertü	*Ez da zeruetan izarrik agertu*
Itxura bera dianik hartü;	*itxura bera duenik hartu;*
Ez bortü gorenetan elürrik phausatü	*ez mendi gorenetan elurrik pausatu*
Garbitarzün bera dianik hartü.	*garbitasun bera duenik hartu.*
2.- Jauna, mintzo zira propheta bezala;	*2.- Jauna, mintzo zara profeta bezala;*
Üdüri zait badüzüla eskola.	*irudi zait baduzula eskola.*
E´nezazüla beraz sobera flata:	*Ez nazazula beraz sobera laudorioztatu*
Juan beharra bainaiz serora.	*joan behar bainaiz serora.*
Komentü batetarat bethikoz banua,	*Komentu batera betiko banoa,*
Ikhas ahal dezadan zelüko bidia.	*ikas dezadan zeruko bidea.*
3.- Ezta komentietan, ezta bakharrik han	*3.- Ez da komentuetan, ez da bakarrik han*
Nihor bizi denik oi! bere plazeretan.	*inor bizi denik, oi! bere plazerretan*
Ez ezar bürian juaiteko bertan;	*ez ezar buruan hara joatea,*
Egon zite, egon libertatian.	*egon zaitez egon libertatean.*
Nik phena banikezü ikhus bazintzat han,	*Nik pena izango nuke han ikusiko bazintut*
Reiahetan barnen nigarrez hürtzetan.	*burni-sare barruan negarrez urtutzen.*
4.- Libertatia zer den oi! nik banaki!	*4.- Libertatea zer den, oi! nik baneki!*
Aita krüdel baten esklabo nüzü ni.	*aita krudel baten esklabo nauzu ni*
Khanbera batian bethi zerratürik,	*ganbara batean, beti itxirik.*
Eniz komünikatzen nihureki.	*Ez naiz komunikatzen inorekin.*
Malherus tristia! Zertako sorthü niz ni!	*Malerus tristea! zertarako sortu naiz ni!*
Eniz arren jelkhiren seküla hementik.	*ez bainaiz sekula aterako hemendik.*

5.- Kuraje, anderia, eskoladün niz ni.
Guziak eginen tit zure amoreagatik.

Mintzo bazirade oi! klarki zü eni,
Zure libratzeaz kargü dit nahi.
Txerkaturen ditit maneria berhezi,
Hegalta ahal zitian zure hegaleki.

5.- Kuraia, anderea, eskoladuna naiz ni.
Guztiak (ahaleginak) eginen ditut zure amodioagatik.

Mintzo bazara, oi! argi zu niri.
Zu libratzeaz enkargatuko naiz
Aurkituko dut modu berezia,
hegan egin dezazun zure hegoez.

6.- Nekez izanen da lan horren egitia.
Ene libratzeko aphaltik so zira,
Ni aldiz hemen gora beldür niz jaustera,
Galdü behar bainüke bizia.
Bostgarren estajian dizüt khanbera,
Goizetan goratik hartzen dit hairia.

6.- Nekez izanen da lan hori egitea.
Ene (ni) libratzeko apalik so zaude
ni, aldiz, hemendik goitik beldur naiz jaustera
galduko bainuke bizia.
Bosgarren solairuan daukat ganbera (gela)
goizetan goitik hartzen dut airea (arnasa).

7.- Nik badit zeta-hari, jina Xinati,
Mehe da, bai, bena fina da biziki.
Txoriñoaz nahi deizüt hura pasatü zuri:
Estek´ezazü lehio bürdünari.
Eraisten ahal zira hura behiti;
Ni hemen izanen niz zure zerbütxari.

7.- Nik badaukat zeta-haria, ekarria Txinatik
Mehea da, bai, baina fina da biziki (oso)
Txoriñoaz nahi dizut hura pasatu zuri:
lotu egiozu leiho-burdinari.
Eraitsi ahal zara handik behera;
ni hemen izanen nauzu zure zerbitzari.

8.- Inutil da jeüsen erraitia.
Aitak jakin baleza, nintzate galdia.

Nahiz hala lizaitan oi! ene desira
Hola izanez zure borontatia.
Ene esklabajia da ikharagarria,
khanbera batetan bethikoz zerratia!

8.- Inutila da horretaz ezer esatea.
Aitak jakin baleza (jakingo balu), galdua nintzateke.

Nahiz hala zatekeen, oi!, nire desioa
hola izanez zure borondatea.
Ene esklabutza da ikaragarria
ganbera batean, betiko itxita!

Abesti hau Zuberoako Ligi herrian bildu zen.

ANALISIA

AMA BATEK

FORMA: A B D D' E



MELODIA




Tonika: ***La***
Modua: ***Minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa/Batekoa/Hirukoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 
Konpasa:

Argizagi ederra. (AITA DONOSTIA; Cancionero *vasco*, 25. zenb., 46-7.or.)





Argizagi ederra, argi egidazu!	*Ilargi ederra, argi egidazu!*
Bide luzean joan beharra nuzu.	bide luzean joan beharra nauzu.
Gau huntan nahi nuke maitea kausitu:	*Gau honetan nahi nuke maitea aurkitu:*
Haren bortharaino, argi egidazu!	*Haren ateraino, argi egidazu!*

Baztaneko Lekaroz herrian 1934. urteko maiatzaren 6an Marcos Baraibarrengandik jaso zuen Aita Donostiak.

1. Pandero mota bat.

ANALISIA

ARGIZAGI EDERRA

FORMA: A B D E



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***M-m***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 6dun m***
Letrak: ***Silabikoa, melisma txikiekin.***
Ahots tartea: ***Re3-Mi4***


ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾 ***(aurretik)***
Konpasa: 𝄴

Joan nintzan merkatura. (AITA DONOSTIA; *Cancinero vasco*, 497. zenb., 628-629. or.)





1.- Joan nintzan merkatura,
erosi nuen txerriñoa,
txerriñoak kurris, kurris, kurris,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.

2.- Joan nintzan merkatura,
erosi nuen arrazkoa,
arrazko orrek ttunttunttun
txerriñoak kurris, kurris, kurris
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.

3.- Joan nintzan merkatura,
erosi nuen txulubitatxua
txulubitak txiruliruliru,
arrazko orrek ttunttunttun,
txerriñoak kurris kurris kurris,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.

1.- Joan nintzen merkatura,
erosi nuen txerriñoa,
txerriñoak kurris, kurris, kurris,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.

2.- Joan nintzen merkatura,
erosi nuen arrazkoa,
arrazko horrek ttunttunttun
txerriñoak kurris, kurris, kurris
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.

3.- Joan nintzen merkatura,
erosi nuen txulubitatxua
txulubitak txiruliruliru,
arrazko horrek ttunttunttun,
txerriñoak kurris kurris kurris,
ni sakelean dirurik gabe
eta deusen jabe.

Azkuek Nafarroako Goizueta herrian bildu zuen Tomás Arribilagaren ahotik entzun ondoren.

ANALISIA

JOAN NINTZAN MERKATURA

FORMA: A B A B' A' B'...



MELODIA



Tonika: ***Re***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 4dun J, 5dun .***

Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Femeninoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa eta hirukoa***

Erritmo landuak: 
Konpasa: 2 3 ♩ ♩

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Kantu hau haur hezkuntzan "merkatua" unitate didaktikoan sar daiteke.

Kantu honetan batez ere, entzunaldia, testua eta jolas dantza landuko ditugu:
- Entzumena lantzeko hots ezberdinak erabiliko ditugu.
- Testua lantzeko marrazkien seriazioaz baliatuko gara.
- Jolas baten bidez interpretatuko dugu.

Entzumena
- Gela girotzeko haurrei hots ezberdinak imitatzea eskatuko zaie, baita keinuz antzeztea ere.
- Irakasleak merkatuko hotsetara bideratuko ditu kantuan kokatzeko.
- Nahi izanez gero, haur bakoitzak merkatuko hots ezberdin bat aukera eta marraz dezala.
- Kantua zenbait aldiz entzun ondoren, hotsen fitxa erabil daiteke, haurrek hotsen sekuentzia barneratu duten ikusteko.

Testua
- Testua ikasteko marrazkiak erabiliko ditugu.
- Lehen bertsoko marrazkien azalpena.
- Kantuaren letra erritmikoki ikasi.
- Doinua ahoskatuz ikasi.
- Doinuari letra sartu.
- Testua hobeto barnera dezaten, marrazkien sekuentzia jarraituz abestu.
- Lehen bertsoa barneratu ondoren, beste bertsoak bigarren eta hirugarren marrazkiak aldatuz osatuko ditugu.

1.	2.	3.	…

Haurren inprobisaketa landu nahi baldin bada, beraiek aurretik egindako marrazkiak abestia luzatzeko erabiliko ditugu. Haur bakoitzak bere marrazkia gelari erakutsiz 2. eta 3. zatiak kanta ditzala eta 1., 4. eta 5.a gela guztiaren artean.

Dramatizazioa

- Jolas baten bidez, abestia dramatizatu egingo dugu.
- Haurrak hiru funtzio desberdinetan banatuko ditugu:


1. Saltzaileak.
2. Merkatuko produktuak.
3. Erosleak

- Gelan dendatxoak jarriko ditugu.
- Denda bakoitzean saltzaile bat eta hainbat produktu egongo dira.
- Eroslea merkatu inguruan.
- Kantatzean haur bakoitzak bere papera antzez dezala.



MERKATUA
GAZTA
SAGARRA








txirulirutx






txirulirut
irulirutxirulirutxir


MEDIATUA

Perretxikotan nenbilenian. (UEU; *Doinu zaharren ingurutik*, 42. or.)





1.- Perretxikotan nenbilenian
Mendiolako basoan
dama gazte bat aurkitu neban
elorri baten alboan.

2.- Gaztea nintzan, zoroa nintzan
jarri nintzakon alboan
amentaltxoa zabaldu eta
hartu ninduen altzoan.

3.- Itandu neuntzan: nongoa zera
damatxo bihotzekoa?
- Jakizu ni naiz pobreen ama
Birjina Arantzazukoa.

4.- Uhiak bere txantxarrak janda
ez dabe osagilerik
ohitura zaharrak galdu ziran da
hobenak lotu bagarik.

5.- Gaztea nintzan zoroa nintzan
itaundu neutsan men-menik
zergatik zagoz damagalanta
hain triste bakar-bakarrik.

1.- Perretxikotan nenbilenean
Mendiolako basoan
dama gazte bat aurkitu nuen
elorri baten alboan.

2.- Gaztea nintzen, zoroa nintzen
jarri nintzaion alboan
amantaltxoa zabaldu eta
hartu ninduen altzoan.

3.- Galdetu nion: nongoa zara,
damatxo bihotzekoa?
- Jakin ezazu, ni naiz pobreen ama,
Birjina Arantzazukoa.

4.- Uhiak bere txantxarrak janda
ez dute osagilerik
ohitura zaharrak galdu ziren eta
hoberenak lotu gabe.

5.- Gaztea nintzen, zoroa nintzen,,
galdetu nion men-menik
zergatik zaude, dama galanta
hain triste bakar-bakarrik.

ANALISIA

PERRETXIKOTAN NENBILENIAN

FORMA: A B D B



MELODIA



Modua: ***Mi mixolidioa***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 6dun m***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Fa#3 -Mi4***


ERRITMOA


Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Azefaloa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Erritmo landuak:



Isilune irudiak: 𝄾 𝄿
Konpasa: 3/8

Xakur eta gathia (ETCHEMENDY, P. eta LAFITTE, P.; Kantuz, 168. or.)





1.-Xakur eta gathia, Minitz eta Potzo
Gasailan ari ziren kasik egun oro.
Bakean egon zaizken ez izanez zoro,
Bainan gerlan zuketen hatzemaiten gozo.

1.- Txakur eta katua, Minitz eta Potzo,
gatazkan ari ziren, kasik egunero.
Bakean egon zitezkeen, ez izanez zoro,
baina gerlan zuketen atzematen gozo.

2.- Xakurra, unatua, noizpait kalapitaz,
Gogoeta hasi zen: ... bakearen onaz:
Gathuari bi hitzen erraitera beraz
Deliberatu zuen laster gauza hortaz.

2.- Txakurra, noizbait kalapitaz nekatuta
gogoeta hasi zen:... bakearen onerako
katuari bi hitz esatea, beraz
deliberatu zuen, laster gauza horretaz.

3.- Potzok zion laburzki gathuari erran:
"Ez dik ainitz balio, ar gaitezen gerlan,
Gaiten bakean bizi gu elgarrekilan,
Bizi izana gatik aspalditik herran."

3.- Potzok zion, laburki, katuari esan:
"Ez dik aunitz balio, ari gaitezen gerlan,
bakean bizi gaitezen gu elkarrekin,
bizi izanagatik aspalditik herran.


ANALISIA

XAKUR ETA GATHIA

FORMA: A A B A'



MELODIA



Tonika: ***Mi***
Modua: ***Eolikoa***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: ♪ | ♩ ♪♩ ♪ | ♩.
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 𝄴

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Testua

Ipuina bere marrazki bidez kontatu.
Ipuina kontatu ondoren, umeek beraien marrazkiak egin eta hauekin gela apaindu.

MINITZ ETA POTZO

Behin batean, mendi tarteko erreka ondoan bazen Josetxoren baserria.

Bertan, beste animalia askoren artean bizi ziren Minitz eta Potzo.

Minitz, katu eder eta garbi–garbia zen, egun osoan beraien ilajea apaintzen ari diren horietakoa. Bere buruan baino ez zuen pentsatzen eta edozergatik berehala haserre bizian jartzen zen. Ez zitzaizkion txantxak eta adar jotzeak gustatzen ezta maitekiro eginikoak ere .

Potzo, berriz, baserriko txakur zaindaria zen. Leiala eta bihotz onekoa. Ez zen Minitz bezain ederra, baina bai aldiz, erabat maitagarria. Beti bere ingurukoak laguntzeko prest, baita txantxetarako ere. Oso alai eta jostagarri agertzen zen beti, irribarrea denontzako agerian zuelarik.

Minitz eta Potzok ez ziren ondo konpontzen, Minitzek ezin baitzituen Potzoren txantxak jasan, ezta Potzok Minitzen berekoikeria ere.

Behin..... (irakasleak eskolan gertatu den istiluren bat eredutzat hartuz asma dezala gertakari zehatz bat)

Eta beti honelakoetan zebiltzan, bata bestearen atzetik ezin ikusiz eta borrokan.

Denbora pasa ahala, Potzo geroago eta tristeago jartzen hasia zen, berari ez baitzitzaion batere gustatzen horrela jardutea. Askoz gogokoago zuen lagunekin gustura jolastea, adiskide asko izatea eta batez ere, barre egitea.

Beraz, Potzok Minitzi zera esan zion:

– Minitz, nik zure adiskide izan nahi dut. Zertarako ibiliko gara beti haserre eta borrokan? Hori ez da batere atsegina eta gainera ez dugu ondo pasatzen. Goazen ba biok batera jolastera eta haserretzen garenean, saiatuko gara konpontzen, baina beti lagun izanik, bai?

Ordutik aurrera, Minitz eta Potzo lagun handiak egin ziren. Haserraldiak ere izan zituzten, baina beti adiskidetasuna galdu gabe, dena elkarren artean hitzeginez konpontzen baitzuten.

Erritmoa.

Kantuarekin zuzenean hasi aurretik, erritmo ariketa orokor batzuk egin:

- Pultsazioa eta azentua lantzeko ariketak.
- Formula erritmiko ezberdinak landu.

Kantuaren prestaketa:


- Kantuaren formula erritmikoak landu
- Pultsua tenpoa eta erritmoa tresna ezberdinez markatu: batzuek erritmoa, beste batzuek pultsua, beste zenbaitek tenpoa, azpi zatiketak egin ...
- Erritmoa soilik markatu, musikarik gabe.

- Letrak gehitu.
- Esaldiak ezberdindu psikomotrizitate ariketa baten bidez.

Jolas dantza

1. Bertsoa

Korroan (eskuak askatuta) ibiliaz, umeek kantua abestuko dute lau esaldiak ezberdinduz, hau da, esaldi-aldaketa bakoitzeko, norabidea aldatuko da.



2. Bertsoa

A A esaldietan: Korroan, eskuak zapiz loturik aurrera eta atzera balantzadan mugitu tenpoa jarraitu eta kantatuz.


B A' esaldietan: Bikoteka zapiz lotuta, pultsazioa markatu oinekin.

3. Bertsoa


Korroan (zapiak gordeta) eskuak loturik berriro ere lehen bertsoaren eskema berbera, hau da, esaldi bakoitzeko alde batera eta bestera.

Dramatizazioa


Hiru antzezlek (mozorrotuta, txotxongiloekin edo itzalekin), narratzailea, txakurra eta katua , kantatu ahala antzeztu.


















AITZIBER.97.

Belea eta axeria. (ETCHEMENDY, P. eta LAFITTE, P.; *Kantuz,*97. zenb., 159. or.)





1.- Belea haragiki
puska bat mokoan
Haren jateko zagon
haitz baten kaskoan.
Axeria ihizin
han gaindi baitzohan.
Usainka eta beha
trikatzen zaio han.

1.- Belea haragiki
puska bat mokoan
Haren jateko zegoen
haitz baten kaskoan.
Azeria ehizan
han gaindi baizihoan.
Usainka eta begira
gelditzen zaio han.

2.- "Egun on, Musde Bele;
zer jaun ederra zu!
zure luma dirdiraz
liluratzen nauzu.
Kantari eder baten
fama ere duzu
Nahi zintuzket entzun:
Othoi kanta zazu".

3.- Belea lorietan
hasten da kantatzen,
Zehe bat duelarik
mokoa zabaltzen:
Bere zitzia zaio
lurrerat erortzen.
Axeria hain xuxen
altxatzeko han zen.

4.- Axeriak: Milesker
dio beleari:
Ez gaitela, to, fida
lausenkariari,
Eta ez ere gure
eder usteari.
Jaki hau daiat hartzen
hitz on horren sari.

2.- "Egun on, Musde Bele;
zer jaun ederra zu!
Zure luma dirdiraz
liluratzen nauzu.
Kantari eder baten
fama ere duzu
Nahi zintuzket entzun:
Otoi kanta ezazu".

3.- Belea loreetan
hasten da kantatzen,
arra bat duelarik
mokoa zabaltzen:
Bere zitzia zaio
lurrera erortzen.
Azeria hain zuzen
altxatzeko han zen.

4.- Azeriak: mila esker
dio beleari:
Ez gaitezela, to, fida
lausengariari,
eta ez ere gure
eder usteari.
Jaki hau diat hartzen
hitz on horren sari.


ANALISIA

BELEA ETA AXERIA

FORMA: A A B A'



MELODIA



Tonika: ***Re***
Modua: ***Dorikoa***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Do4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 2.

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Ipuina

Jadanik jakingo duzuenez, animalia guztiek, baita gure basoetakoek ere, ia egun osoa janari bila ematen dute, ez badute gosez hiltzerik nahi behintzat.
Horretarako, animalia bakoitzak bere era edo bide ezberdinak ditu: batzuk, harrapakariak dira, beste batzuk ama–lurrak emandakoa jaten dute(belarra, fruituak,...), beste asko... beno, gure herrialdeko baso batean gertatutako hurrengo istorioa entzun eta ikusiko duzue...

Goizean goizik belea, egunero bezala, janari bila abiatu zen.
Soro, baratze, zuhaitzarte, mendibazter eta harkaitz guztiak ondo miatu ondoren, azkenean hainbeste desiratutako janari puska lortu eta eguzkitik alde egin nahian, kerizpea nagusi zen haitz baten kaskoan jarri zen, lasai-lasai eguneko bazkariari aurre egiteko asmoz.
Handik hurbil, azeri zaharra buelta-bueltaka zebilen eta haitz ondotik pasatu ahala, ikusmena eta usaimena erabat trikatu(gelditu) zitzaizkion(azeriek oso ikusmen eta usaimen onak baitituzte). Beraz, gora begira hantxe aurkitu zuen gure belea, janari puska mokoan, barnera sartzeko prest zeukala.

"Egunon, Musde Bele,
Zer jaun ederra zu!
Zure luma dirdiraz
liluratzen nauzu
Kantari eder baten
fama ere duzu.
Nahi zintuzket entzun:
Othoi, kanta zazu"

Belea hau entzunik oso harro sentitu izan zen, halako gauza ederrak esan baitzizkion azeriak. Beraz kantari ederra zelakoan, mokoa zabaldu eta kantuan hasi zen.
Baina... Hau zoritxarra!
Mokoa zabaldu eta berehala bertan zeukan janari zatia lurrera erori zitzaion.
Nola ez! Han zegoen gure azeri zaharra beleak hainbeste kostata lortu zuen janaria bereganatzeko prest. Beraz, lurrera erori orduko Zast! bertan asetu zuen bere gose grina.

"Milesker, Musde Bele
Ez gaitela, to, fida
lausenkariari,
Eta ez ere gure
eder usteari.
Jaki hau daiat hartzen
hitz on horren sari".

Ipuinaren inguruan burutu daitezkeen zenbait ideia:

Ipuina txontxongilo bidez antzeztu.
Marrazkiak ipuina kontatu ondoren erakutsi, honela umeek beraien irudimena gehiego erabil dezaten.

Jolas dantza

Korroan

1. Bertsoa
Bi esalditan banatu: A eta B
Eskuak lotuta, A zatian alde baterantz ibili eta B zatian besterantz.


2. Bertsoa
Korroan jarraituz, bikoteka ipini (bata belea eta bestea azeria izanik). Alde baterantz ibiltzerakoan, azeriak beleari kantatzen dio.


3. Bertsoa
1. bertsoa bezala.

4. Bertsoa
2. bertsoa bezala.

Kantua amaitzerakoan, beleak azerien atzetik hegaz joango dira, harrapatu nahian.





















AITZIBER.99.

Astoa heldu bortutik (AZKUE; *RIEZU,* 162-165)





Astoa heldu bortutik
nafar arnoz kargaturik;
mendi gainean hatzemaiten du
otso handi bat etzanik.

Astoa heldu mendatetik
nafar ardoz kargaturik;
mendi gainean aurkitzen du
otso handi bat etzanik.

-"Egun on hiri, Otsotto!"
-"Bai hiri ere, Astotto!"
-"Ez diat hemen haragi, bainan
bai nafar arno xuritto".

-"Ez nuk orai ez egarri,
bainan sobera goseti;
hire buru eta beharriak
gaur enetzat afari!"

-"Mendi gain hortan artalde,
zakurrik ere ez die;
ahari gizen heiek nik baino
haragi hobea die.

-"Zangoan diat arhantze,
xutik egon ez naiteke;
badudalarik zer yan hementxe,
zertarat yoan haraxe?".

-"San Bartolomen ermita
bortu gain hortan omen da;
berdin gero yanen banuk ere,
entzun behar diat meza".

Astoa elizan sartu,
aztalaz borta zerratu;
eta otsotto gaizoa aldiz
bera kanpoan baratu.

-"oi meza horren luzea!
Erramukoa othe da?".
-"Ez duk hau meza Erramukoa,
bai hire tronpatzekoa".

-"Asto zaharra, mukizu,
sobera berri dakizu!
Nik hemen berriz hatzeman eta
meza entzunen ez duzu".

-"Egun on hiri, Otsotxo!"
-"Bai hiri ere, Astotxo!"
-"Ez diat hemen haragi, baina
bai nafar ardo zuritxo".

-"Ez nauk orain ez egarri,
baina sobera goseti;
hire buru eta belarriak
gaur niretzat afari!"

-"Mendi gain horretan artalde,
zakurrik ere ez dute;
ahari gizen haiek nik baino
haragi hobea dute.

-"Zangoan diat arantza,
zutik egon ez naiteke;
badudalarik zer jan hementxe,
zertara joan haraxe?".

-"San Bartolomeren ermita
mendi gain horretan omen da;
berdin gero jango banauk ere,
entzun behar diat meza".

Astoa elizan sartu,
aztalaz atea itxi;
eta otsotxo gaisoa aldiz
bera kanpoan baratu.

-"oi meza horren luzea!
Erramukoa ote da?".
-"Ez duk hau meza Erramukoa,
bai hire tronpatzekoa".

-"Asto zaharra, mukizu,
sobera berri dakizu!
Nik hemen berriz antzeman eta
meza entzungo ez duzu".

Azkuek, Arizkunen (Baztan), Ignazio Iriberrirengandik jaso zuen ipuin itxura duen kantu hau.


ANALISIA

ASTOA HELDU BORTUTIK

FORMA: A B A B'



MELODIA



Tonika: ***La***
Modua: ***Minor melodikoa***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3- Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Konpasa: 2/4

2.5. OFIZIOZKO KANTAK


2.5.1. Sarrera


Ugariak dira ofizio ezberdinen inguruan sortutako kantak. Hauetan antzinako lanbideen deskribapenak egiten dira, kontaketa adierazgarri bezain aberasgarri bihurtuz.

Kanta hauei esker ofizio batzuen xarma uler dezakegu bai eta beste batzuen astuntasuna ere.

2.5.2. Kantuak

Arrain saltzaillia. (ERCILLA, B. de; *Colección de cantos vizcainos*)





Ni naiz emakume bat arrain salzaillia.
Marinelak itxasotik dakarren gustia (bis)
Nai besigu nai legatz atun sardinia
nai txirla nai miezga bakart auguillia. (bis)

Ni naiz emakume bat arrain saltzailea.
Marinelak itsasotik dakarren guztia (bis)
Nahiz bisigu nahiz legatz, atun, sardina
nahiz txirla nahiz mielga, bokart, aingira. (bis)


ANALISIA

ARRAIN SALZAILLIA

FORMA: A B A B D E



MELODIA



Tonika: ***Mi***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Fa#4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Femeninoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: ♩♫ ♩
Konpasa: 𝄵

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Diktaketa Erritmikoa

Kantu honetan batez ere, diktaketa erritmikoa kantu baten bidez nola landu daitekeen azalduko dugu

Bertan lantzen diren irudiak bi kortxea eta beltza. ♪♪ eta ♩.

Prozedura:
– Beroketa gisara ♩ eta ♪♪ daramaten eskema erritmikoak imitazioz landu, bertan gero diktaketan erabiliko ditugun eskemak ere sartuz.

– Gorputzeko atal ezberdinen arteko koordinazioa ere landu daiteke. Adibidez oinekin ♩ eta eskuz ♪♪ "hop" esandakoan aldatu (oinez edo eserita) edo bi eskuen artean...Bi atalen arteko koordinazioa lortzen dutenean, erritmoari ongi datorkion beste musika bat jarriz gero gauza bera errepikatzeko era atsegingarri eta aldi berean lagungarria suertatzen da. Koordinazioa lantzerakoan kontutan eduki behar dugu askoz ere errazagoa egiten zaiela gorputza, hankak eta eskuak banatzea (horizontalki), eskuin eta ezkerrean baino (gorputz-banaketa bertikala).

– Melodia barneratuz joan daitezen, aldiko jardun ezberdinak eginaraziz, melodia behin eta berriz errepikatuz joango gara. Adibidez:

- Irakasleak melodia jotzen duen bitartean, ikasleak pultsazioa ematen joango dira (oinez, txaloz, perkusio instrumentuekin...).
- Oraingoan berdin, baina pultsazioa eman beharrean bi kortxeen erritmoa eginez jarrai dezakete melodia.
- Azkenik, melodia kortxeak eta beltzak aldi berean eginez jarraituko dugu. Horretarako, gela bi taldetan bana genezake, bakoitzak irudi bat egin dezan, edo norbera bi erritmoak egiten saia dadin.
- Hirugarren bat abestiaren azentua emanda egitea izan daiteke.

– Orain arte sentsorialki egin duguna bakoitza bere orrian egiten saiatuko da:

- Ikasle bakoitza, melodia entzuten duen bitartean, bere orrian pultsazioa markatuz joan dadila.

  1 1 1 1 1 1 1 1
  1 1 1 1 1 1 1 1
  1 1 1 1 1 1 1 1
  1 1 1 1 1 1 1 1

- Ikasle bakoitzak kopuru berdina ez badu idatzi, berriro jotzeko aprobetxatuko dugu.

- Bakoitzak bere pultsazioen partitura jarrai dezala baina oraingoan beraiek ere melodia ahoskatuz; ti ti ta, lala, mama... nahi diren ahoskera ezberdinak eginez.

- Pultsazioen partiturari jarraiki, pultsazio bakoitzeko bi kolpe somatzen duten bakoitzean pultsazio marra hori beste marra batez zeharkatu behar dute.

  \+ l + + + + l l
  \+ + + + + + l l
  \+ + + + + + l l
  \+ l + + + + l l

- Idatzi duten pultsazioen partitura ohizko musika lengoaiako grafiara pasa dezatela biko neurria,zatilerroak ...jarriz.

– Ariketa ezberdinak eginda, horrenbeste entzun ondoren eta ia buruz dakigunez, zatika hartuko dugu eta eskema erritmikoa sentsorialki ateratzen saiatuko gara. Horretarako, beltzak magalean egingo ditugu eta kortxeak txaloz. Lehenik entzun, gero barnetik pentsatu eta gero kanporatu. Hau, fitxa egin nahi ez badugu, diktaketa egiteko beste aukera bat da.

– Egitura erritmikoaren eskema sentsorialki landuko dugu. Gela bi taldetan banatu, eta talde batek egitura bat egingo du eta besteak bestea. Bi egiturak hobeto ezberdintzeko, tinbre ezberdina emango diogu egitura bakoitzari (gorputz perkusioaren bidez egin daiteke edo perkusio-instrumentuz).

– Amaitzeko, irakasleak kanta guztia den bezala jo dezala eta kantuaren forma kontutan izanik orri bukaeran duten musikograma margotu dezatela. (talde batekoa margo batez, eta bestekoa beste batez)



Kantua bera, irakasleari ondoen iruditzen zaionean landu dezake, hasieran ikasi, dena egin odoren, tartean...

Forma eta tonu aldaketa

– Taldea bi zatitan banandu, eta kantuaren zati ezberdinak txandakatuta abestu beharko dituzte, hauek aurrez aldetik zehaztu gabe, momentu bakoitzean doinuak duen galdera edo erantzun zentzua asmatuz. Emaitza hau izango da:

1. taldea	2.taldea
a	b
a	b
d	e
d	e
a	b
a	b

– Berriro txandakatuta abestu, eta bakoitzak abesten dituen zatien azentu edo konpasak zenbatu (suposatzen da abestiaren pultsazioa eta azentua aurretik landuta daudela). Emaitza honako hau izango da:

a zatia: 4 azentu
b zatia: 4 azentu
d zatia: 4 azentu
e zatia: 4 azentu

– Orain, txandakatu talde bakoitzak zati handiago bat abestuko duelarik. Kasu honetan galdera eta erantzuna lotuta abestuko dituzte eta emaitza hau izango da:

1. taldea	2. taldea
A (a b)	**A (a b)**
B (d e)	**B (d e)**
A (a b)	**A (a b)**

– Nahiz eta sei zati kantatu, konturatu errepikatzen diren bi zati ezberdin bakarrik daudela, hainbat aldiz errepikatuta. Horregatik, orain berdinak diren zati guztiak talde berberak abestuko ditu.


– **A** zatia soilik abestu letra gabe eta berriro taldea zatitu galdera **(a)** eta erantzuna **(b)** ezberdinduz. Talde bakoitzak adieraz dezala noiz agertzen den tonika bere zatian eta konprobatu berdina dela kasu bietan. Ondoren, modu Maiorrean edo minorrean dauden ikusi.


– Orain abestu **B** zatia, A zatiarekin egin den bezala eta berriro tonika non agertzen den zehaztu, lehenengo galderan **(d)** eta gero erantzunean **(e).** Konturatu ondoren tonika ezberdina dutela, konprobatu berdin gertatzen den modalitatearekin.

– Azkenik, konprobatu **A**ko tonika **d** edo **e**–ko berdina den.

– Partitura ikustea, besterik ez da falta, zehaztu dena egiaztatzeko.
Konklusio gisa, esan dezakegu kantu honek, tonalitate garrantzitsu eta nagusi batean egon arren, baduela beste tonalitate ezberdin baterako, erlatiborakoa, hain zuzen, joan-etorri labur edo flesio bat.

Iruten ari nuzu (ETCHEMENDY, P. eta LAFITTE, P.; Kantuz, 118. or.)





1.- Iruten ari nuzu, khilua gerrian.
Ardura dudalarik ardura dudalarik nigarra begian.
Ardura dudalarik nigarra begian.

2.- Nigar egiten duzu oi suspirarekin! (berriz)
kontsolaturen zira (ber) oi denborarekin (b).

3.- Ezkont-mina dudala zuk omen diozu. (ber)
Ez dut amore minik (ber) gezurra diozu (ber).

4.- Ezkont-mina dutenak seinale dirade (ber)
Mathel-hezurrak idor (ber) koloreak berde (b).

1.- Iruten ari nauzu, kilua gerrian.
Ardura dudalarik ardura dudalarik negarra begian.
Ardura dudalarik negarra begian.

2.- Negar egiten duzu oi suspirarekin! (berriz)
Kontsolatuko zara (ber) oi denborarekin (b)

3.- Ezkont-mina dudala zuk omen diozu. (ber)
Ez dut amore minik (ber) gezurra diozu. (ber)

4.- Ezkont-mina dutenak seinale dirade (ber)
Matel-hezurrak idor (ber) koloreak berde (b).

ANALISIA

IRUTEN ARI NUZU

FORMA: A B D



MELODIA



Tonika: ***Fa***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Fa3-Fa4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Laukoa***

Erritmo landuak: ♩ | ♩.♫ | ♩.♬ | ♩ ♩
Isilune irudiak: 𝄽
Konpasa: 𝄵

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Instrumentazioa

Kantu hau bi erara instrumentatu dugu, bat era errazean eta bestea zailtxeagoan. Bata edo bestea aukeratzerakoan, kanta hori ikasteko orduan, irakasleak argi eduki behar ditu zein diren bere helburuak; abesti bat plakazko instrumentuekin jotzeaz gain, instrumentuarekiko zailtasun mekanikoak ere landu nahi dituen ala ez.

Adibidez, aurkezten den bigarren bertsioan, metalofoi soprano eta xilofoi altuaren instrumentazioa jotzea nahiko erraza da, bi eskuak beti txandakatuz doazelako, eta gainera, beltzaren pultsazioa darama. Bestalde, xilofoi sopranoa ere, bi eskuak txandakatuz jotzen da beti baina, oraingo honetan, kortxeen erritmoa eramanez eta zailtasun tekniko gehiagorekin. Gelditzen diren beste hirurek berriz akordeak jotzen dizkigute, baina bakoitza zailtasun-tekniko ezberdinarekin; metalofoi baxuarena da errazena, gero xilofoi baxuarena eta azkenik metalofoi altuarena. Beraz, hau guztia kontutan izanik, irakasleak berak erabaki beharko du kanta horren instrumentaziorako zein pentagrama landu bere ikasleekin edo nahi izanez gero, denak landu ditzake.

K. Karriloi

X_S. Xilofoi sopranoa

M_S. Metalofoi sopranoa

X_A. Xilofoi altua

M_A. Metalofoi altua

X_B. Xilofoi baxua

M_B. Metalofoi baxua

 Hirukia

 Pandero


 Zintzarria


 Klabeak

IRUTEN ARI NUZUN



IRUTEN ARI NUZUN





K
X_S
M_S
X_A
M_A
X_B
M_B


K
XS
MS
XA
MA
XB
MB


K
X_S
M_S
X_A
M_A
X_B
M_B

Landan eder aitzurra (AZKUE; *Cancionero popular vasco*)





1.- Landan eder aitzurra,
artzain zangamakurra,
estudiante tunante batek
enganatzera nerama;
ark engana, nik engana,
bakoitza bere launengana.

2.- Eder datza goizean
artizarra itzaltzean
idiak marru, zakurrak zainga
alor-aldera yoaitea;
aitzin-gibel dabiltzala,
ni ere banoa yauzala.

1.- Landan eder aitzurra,
artzain zangomakurra,
estudiante tunante batek
engainatzera narama;
hark engaina, nik engaina,
bakoitza bere lagunengana.

2.- Eder datza goizean
artizarra itzaltzean
idiak marru, zakurrak zaunka
alor aldera joatea;
aurre-atze dabiltzala,
ni ere banoa jauzi batean.

Abesti hau Baztaneko Bozate herrian Juliana Jaurenarengandik jasoa izan zen. Julianak lehenengo ahapaldia baino ez zuen abestu, bigarrena Azkueren lana izan zen.

ANALISIA

LANDAN EDER AITZURRA

FORMA: A B D



MELODIA



Tonika: ***Sol-Mi***
Modua: ***Maiorra-minorra***
Bitarteak: ***2dun M-m, 3dun M-m 4dun J***
Letra: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: ♩ ♪♪ | ♩. | ♫♪
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 𝄇

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Instrumentazioa

Kantu honetan perkusio mugagabea bakarrik erabiliko dugu. Oraingoan obstinatoetatik erritmo iraunkor batzuetara pasatuko gara. Hau da, ikasleak denbora guztian erritmo berbera egingo du, baina ez kantu guztian zehar, baizik eta dagokionean.

Lehenengo bertsioan ikasleek beti erritmo berbera egingo dute, baina abestiaren egitura erritmiko berbera errespetatuz.

Bigarren bertsioan ere, bukaeran izan ezik, denbora guztian erritmo berbera egingo dute baina ez da izango kantuaren egitura erritmiko berbera.

Ikasleek balio erritmikoak ongi barnera ditzaten, beharrezkoa da erritmo iraunkorrak lantzea. Kantu honen instrumentazioa oso aproposa dugu horretarako.

LANDAN EDER AITZURRA



LANDAN EDER AITZURRA



2.6. KANTA SATIRIKOA

2.6.1. Sarrera


Jaiegun eta ospakizun-kantuen estilokoak ditugun kantu hauek ugariak eta ondo landutakoak dira biltzaile askoren ustetan.


Jenero hau bertsolaritzaren ingurutik ezagutu dugu gehienbat, izan ere asko dira bizitasun eta trufaz josirik aurki daitezkeen bertso egiturako kantuak.

Bestalde, gure iritzi apalean behintzat, doinu edo musika alorrean dituzten ezaugarrietan sartu gabe, testuak konparaketa ironiko eta metaforaz hornituta daudela esan daiteke.

2.6.2. Kantuak

Adizan, Gabriela (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*, I Tomoa, 21.zenb., 32-33. or.)





1.- Adizan, Gabriela,
Zenbat urte ditun?
-*Ogei ta amasei.
-Nik geia baditun.
Baldin oraingo txandan
Ezkontzen ezpagaitun,
Geren bizi guziko
Neskazartu gaitun.

2.- Nereak oi ta amalau
Ditun onezkero,
Baña neskazartzerik
Ez diñat espero;
Mutillak ezkontzeko
Ain zebiltzen bero,
Beintzat nik badizkiñat
Zazpi zapatero.

3.- Nik ere badiskiñat
Lau txikiatzalle
Zazpi barkillero ta
Bi piper-saltzalle,
Eta gañera iru
Kale-garbitzalle,
Bi kabo primero ta
Lau arpa-jotzalle.

1.- Adizan, Gabriela,
Zenbat urte ditun?
-Hogeita hamasei.
-Nik adina baditun.
Baldin oraingo txandan
Ezkontzen ez bagaitun,
Geure bizi guztiko
Neskazahartu gaitun.

2.- Nereak hogeita hamalau
Ditun honezkero,
Baina neskazahartzerik
Ez dinat espero;
Mutilak ezkontzeko
Hain zebiltzen bero,
Behintzat nik baditinat
Zazpi zapatero.

3.-Nik ere baditinat
Lau txikiatzaile
Zazpi barkilero eta
Bi piper-saltzaile,
Eta gainera hiru
Kale-garbitzaile,
Bi kabo primero eta
Lau arpa-jotzaile.

* Nereak ogei ta amasei
pasatuak ditun (Aita Zabalaren bertsioa).
Nik geia baditun (Nik adina baditun).

4.- Nere bizi moduaz
Nion ernegatzen,
Mutil guztokorikan
Ez diñat billatzen.
Gorputza asi zaidan
Pixka bat torpetzen,
Neskazarra naizena
Zidaten igartzen.

4.- Nire bizi moduaz
Nion ernegatzen,
Mutil gustukorik
Ez dinat bilatzen.
Gorputza hasi zaidan
Pixka bat torpetzen,
Neskazaharra naizena
Zidaten igartzen.

5.- Soñekorik onena
Egin diñat jantzi,
Gañera eskutikan
Sonbrilla ta guzi.
Oingo mutil gaztiak
Ainbeste malezi,
Ni ikusi orduko
Ziazten igesi.

5.- Soinekorik onena
Egin dinat jantzi,
Gainera eskutikan
Sonbrila eta guzti.
Oraingo mutil gazteak
Hainbeste malezi,
Ni ikusi orduko
Zihoazten ihesi.

6.- Oso itxusia den
Neskazar izena;
Aditu utsarekin
Artzen diñat pena.
Oraiñ edukirikan
Sasoirik onena,
Au da lastimagarri
Gu biok gaudena.

6.- Oso itsusia den
Neskazahar izena;
Aditu hutsarekin
Hartzen dinat pena.
Orain edukirik
Sasoirik onena,
Hau da lastimagarri
Gu biok gaudena!

Abesti satiriko hau Madrilgo El Pradon Berako mutil batengandik jasoa da. Ondoren, Aita Donostiaren eskutara heldu eta ezagutzera eman zuen.


ANALISIA

ADIZAN GABRIELA

FORMA: A A' B A'



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Do4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯 𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯 | 𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯 𝅘𝅥𝅯 | 𝅘𝅥. 𝅘𝅥𝅯
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 𝄵

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Erritmoa

Erritmo berriak azaltzeko eta lantzeko era asko daude, baina kasu honetan bi era azalduko ditugu. Bat prozesu kognitiboan oinarrituz eta bestea sentsorialean.

Prozesu kognitiboan

Kantu hau lantzen hasteko suposatzen da ikasleek beltzak, kortxeak eta zuriak ongi menperatzen dituztela.

Prozedura:

– Partitura guztia doble mantxoan landuko dugu, hau da, beltzak zuri bihurtuz, kortxeak beltz eta kortxeaerdiak kortxea.

– Hori ongi menperatzen dutenean beltzaren pultsazioz irakurri beharrean zuriaren pultsazioz irakurtzeko eskatuko diegu; orduan erritmo berriaren sorrera azalduko diegu

– Azkenik, partitura den bezala irakur dezatela.

Komenigarria litzateke kantaren lehen bertsoa buruz ikasiko balute, honela, erritmo berri hau gogoratzeko, abestiaren hasiera erreferentzi gisa izan dezaten.

Sentsorialean oinarriturik

Kantu honekin formula erritmiko hau landuko dugu



Prozedura:

– Kantarekin hasi aurretik sentsorialean oinarriturik dauden zenbait beroketa ariketa egingo ditugu:

- Korroan eseri eta elkarri egitura erritmiko hori pasa, batetik bestera pasatzerakoan isiluneak eginez (tartean ikusezinezkoa den pertsonaia bat daukagula pentsatuz), isilunerik egin gabe...
- Irakasleak jarraian beti erritmo berbera jo, eta asmatu zenbat aldiz jo duen.
- Akordeko notak edo ahotsetara jotako beste edozein notarekin errepikatu erritmo hori.
- Gela bi taldetan banatu, batek erritmo hori egin dezala, eta bigarrenak pultsazioa, ongi ateratzen bada “hop” esaterakoan alda dezatela.

– Egitura erritmiko horren pultsazio bakoitza hobeto bereizteko, honela banatuko dugu:  txaloz eta  sabelean

– Egitura hori barneratu ondoren irakasleak kantua pianoz joko du eta ikasleei komentatzeko eskatuko die: ea zer konpas mota ote den, zer irudi erritmiko somatu duten, zerbait berririk edo ezagunik ba ote dagoen.

– Ikasleak beraiek ohartu badira ongi, bestela egitura erritmiko berri honi errepasotxo bat eman eta oraingoan irakasleak kantu hori jotzen duenean arretaz entzun beharko dute egitura erritmiko hori zenbat aldiz agertzen den jakiteko.

– Normalean erantzun ezberdinak egoten direnez, egoera hau berriro kantu bera jotzeko aprobetxatuko dugu, baina oraingoan barnetik pentsatzen joan beharrean eskua altxatu beharko dute somatzen duten bakoitzean. Ondoren, berriro ere egitura erritmikoa azaltzen den kantitateaz eztabaidatu.

– Ikasleen artean aniztasun handia egoten denez, erritmoak hartzeko erraztasuna dutenei batez ere, hurrengo ariketa hau proposatuko diegu. Lehen, somatzen zutenean eskua altxatu bakarrik egiten zuten, oraingoan ekintza piska bat zaildu egingo diegu. Orain eskua altxatu beharrean egitura erritmiko hori somatzen duten une berean, txaloz edo beste perkusio baten bidez beraiek ere interpretatu egin behar dute. Ariketa hau klasearen hasieran eginez gero, ziur aski gutxi batzuek egingo dutela ongi, baina bukaeran berriro errepikatzen badugu eta ikasleek egitura hori barneratu badute, ziur denak edo ia denak hori egiteko gauza izango direla.

– Ohizko grafian oraindik ez badiegu azaldu nahi, era honetara ere landu genezake.

- Bakoitzak bere kuadernoan edo haur batek arbelean entzun ahala abestiaren azentua idatziz joango da. Hau nahi izanez gero sentsorialki ere landu daiteke perkusioaren bitartez azentu hori emanda.

1 1 1 1 1 1 1 1
1 1 1 1 1 1 1 1

- Aurreko urteetatik kantuaren forma eta esaldiak landuta badatoz garrantzitsua da horretaz ohartzea, lehen egin dugun eran adierazita edo jarraian marra haundi bat edo fuerteagoz.

- Orain azentu horri bere gainean eta ondoan pultsazioa markatuz joango gara.

1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 .
1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 .

Hau ere, lehen aipatu dugun bezala, sentsorialki ere egin daiteke. Are gehiago gorputz atalen arteko koodinazioa lortu nahi badugu, egin daitekeena da, abestia entzunez gorputz atal batek pultsazioa eman eta besteak azentua (hemen kontutan izan gorputza horizontalki edo bertikalki banatu nahi dugun). Gehiago zaildu nahi badugu alde batetik pultsazioa bestetik azentua eta ahotsarekin melodia (erritmoa) egiten badugu, aldi berean hiru gauza egiten arituko gara.

- Hurrengo pausoa litzateke pultsazioa eta azentua markatu dugun orri horretan ♪♪♪ ♪♪ egitura entzuten den lekuan borobil gorri edo beste koloreko borobil batean sartzea.

1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 .
1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 . 1 .

- Klasearen amaieran irudi hori nola idazten den adieraz diezaiekegu, Adizan Gabrielarekin ikasi zuten irudia, ziur ez zaiela ahazten.

Beste zenbait ariketa:

- Ahoskera ezberdinez melodia landu.
- Abestiaren istorioa kontatu.
- Letra landu
- Abestu.

Kantuaren melodia eta erritmoa ondo barneratu ondoren nahi adina joko erritmiko egiteko aukera emango dizu, batzuk errezagoak, besteak zailtxeagoak. Adibidez:

- Lehen aipatu duguna abestu pultsazioa eta azentua aldi berean emanez. Hori oso zaila gertatzen bada, gela hiru-lau taldetan banatu eta bakoitzari eginkizun ezberdinak eman, eta nahi izanez gero, perkusio tresnez interpreta dezatela:
  1. taldeak abestu.
  2. taldeak pultsazioa eman.
  3. taldeak azentua eman.
  4. taldeak egitura erritmiko hori adierazi.

Modu minorra

Kanta honek bi erako modu minorrak batera lantzeko aukera ematen digu. Noski, horretarako aurrez aldetik, bi era hauek independienteki landuta egon beharko lukete.

Hortik aparte, ondoren aurkezten den prozesuan, kantua pixkat aldatuz modu Maiorra minorrarekin nahastuta lantzeko aukera ere eskaintzen da.

Pauso ezberdinak:

– Kanta partitura gabe ikasi.
– Letra gabe abestu eta Tonika abesten den bakoitzean ikasleei eskua altxarazi.
– Ikasleei galdetu abestia modu Maiorrean edo minorrean dagoen.
– Partitura erakutsi eta modu minorrean dagoela baieztatu, eta ezagutu kantuaren tonu zehatza bere aldakariekin.
– Aztertu nolako minorra den, sentsibleduna edo sentsible gabea eta atera honen arabera kantak duen egitura:

a: sentsiblearekin

a': sentsiblearekin

b: sentsible gabe

a': sentsiblearekin

– Abestu kantuak dituen bi eskala minorrak, ezberdintasuna zein den azpimarratzeko.

– Kantuaren jatorrizko bertsioa aldatu, sentsibledun zatiak sentsible gabe eta sentsiblegabeak sentsiblearekin abestuz.


– Gero arbitrarioki eta irakesleak momentu bakoitzean zehazten duenaren arabera, (jolas eran) sentsiblearekin edo sentsible gabe zati bakoitza kantatu.

– Orain tonu berdineko eskala Maiorra abestu eta jarraian a eta a' zatiak ere Maior bihurtuz kantatu (b minorrean mantenduz).

– Berdina egin, baina orain Maior bihurtuko dena "b" zatia izango da.

– Azkenik Maiorra eta minor mota biak abestian ordena ezberdinetan tartekatuko dira momentu bakoitzean irakasleak zehazten duenaren arabera (lehen minor biekin egin den eran)

Ama, ezkondu ninduzun (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*)





1.- Ama, ezkondu ninduzun hamabost urtetan;
Senarra eman ninduzun larogei urtetan, larogei urtetan.
Senarra daukat ohian eri, uliak ostiko manik min harturik.
Hiltzen bada ere, ez dut eginen nigarrik.
Hil bedi, gal bedi, ez dut eginen nigarrik;
Hil bedi, gal bedi, etzuen balio lau txori.

1.- Ama, ezkondu ninduzun hamabost urtetan;
Senarra eman ninduzun laurogei urtetan, laurogei urtetan.
Senarra daukat ohean gaixorik, euliak ostiko emanda min harturik.
Hiltzen bada ere, ez dut egingo negarrik.
Hil bedi, gal bedi, ez dut egingo negarrik;
Hil bedi, gal bedi, ez zuen balio lau txori.

Kantu hau 1913. urteko urtarrilaren 2an Saran jasoa da. Adele Diharasarry izan zen kantuaren berriemalea.


ANALISIA

AMA EZKONDU NINDUZUN

FORMA: A B D +Koda (A A A)



MELODIA





Tonika: ***La***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Femeninoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***
Erritmo landuak: 
Konpasa: 𝄴

Aitak eman daut dotea (AITA DONOSTIA; *Cancionero vasco*)





1.- Aitak eman daut dotea
Neurea, neurea:
Urdeño bat bere xerriekin,
Oilo koloka bere xitoekin,
Tipula korda heiekin. (bis)

2.- Otsoak jan daut urdea,
Neurea, neurea,
Axeriak oilo koloka,
Arratoinak tipula korda.
Adios ene dotea! (bis)

1.- Aitak eman dit dotea
Neurea, neurea:
Urdeño bat bere txerriekin,
Oilo koloka bere txitoekin,
Tipula korda haiekin. (bis)

2.-Otsoak jan dit urdea,
Neurea, neurea,
Azeriak oilo koloka,
Arratoiak tipula korda.
Adios nire dotea! (bis)

1913. urtean Saran bildutako kantu honen melodiak Bereterretxeren Haltzak eztü bihotzik abestiarekin antza handia du. Saran jasoa da.


ANALISIA

AITAK EMAN DAUT DOTEA

FORMA: A B D



MELODIA



Tonika: ***Mi***
Modua: ***minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako errtimoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Konpasa: 2/2

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Obstinato bat zer den haur bati azaltzeko nahikoa dugu abesti hau instrumentatuz ikastea. Hori esperimentatu ondoren azaldu zer den obstinatoa.


Hauek perkusio mugagabeekin egin ditugun bi instrumentazio dira, obstinato batzuen laguntzaz.

Bata lau instrumenturentzat (zintzarriak, kaja, panderoa eta klabeak) eta era errazean eginda dago, eta bestea hiru instrumenturentzat (zintzarriak, panderoa eta klabeak) era zailtxeagoan.


Era erraza




Era zailtxeagoa



Praka zar txikitxoa (GERENO, L.; *Euskal abestiak*)



PRAKA ZAR TXIKITXOA



Praka zar txikitxoa,
zuloz betekoa,
alkondarea ere,
bere antzekoa.
Mendian izan arren,
edurra naikoa,
auxe da Imanolek,
daukon soñekoa.

Praka zahar txikitxoa,
zuloz betekoa,
alkondara ere,
bere antzekoa.
Mendian izan arren,
edurra nahikoa,
hauxe da Imanolek,
daukan soinekoa.

ANALISIA

PRAKA ZAR TXIKITXOA

FORMA: A B A' B'



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra***
Azentua: ***Bikoa***


Erritmo landuak: ♩ ♪ | ♫ ♫ ♪ ♩ | ♩.
Isilune irudiak: 𝄽.
Konpasa: 𝄴.


APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Testua

Kantua ikasi ondoren, eskolako lan osagarri eta diziplinarteko ekintza bezala, kanta dagoen euskalkian ikasi eta batura pasa dezakete, eta orria apainduz abestiari marrazkitxo bat egin diezaiokete.

Aita zar bat badegu ( )





Aita zar bat badegu familiakua;
Zazpi ume utzi ta juanikekua.
Aren andria dago sabelez flakua;
Etxean koiperik ez, dendan oliua.
Antxen, antxen dago purgatoriua.

Aita zahar bat badugu familiakoa;
Zazpi ume utzi eta joanikakoa.
Haren andrea dago sabelez flakoa;
Etxean koiperik ez, dendan olioa.
Hantxe, hantxe dago purgatorioa.

Abesti hau 1920. urtean Nafarroako Unanua herrian jaso zuten P. Modesto de Lecumberriri entzun ondoren.


ANALISIA

AITA ZAR BAT BADEGU

FORMA: A A' A B A



MELODIA



Tonika: ***Fa***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Sol3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♪ ♩ ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***(1+2+2)***
Azentua: ***Hirukoa***

Erritmo landuak: ♪♫ ♫ ♫ | 𝅗𝅥. ♩
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 5/8

Ai, Peru, Peru, Peru (UEU; *Doinu zaharren inguruan*)





1.- Ai, Peru, Peru, Peru!
Zu beti alperra.
Sarri izango dozu
alkondara zaharra.

2.- Baserriko mutila
kontsolagarria.
Kolkoan arto zati
ikaragarria.
----traila-----

3.- Alkondara agirian
frakaren zulotik
eta txapel txatala
belarri ondotik.
-----traila-----

1.- Ai, Peru, Peru, Peru!
Zu beti alperra.
Sarri izango duzu
alkondara zaharra.

2.- Baserriko mutila
kontsolagarria.
Kolkoan arto zati
ikaragarria.
---traila----

3.- Alkondara agirian
frakaren zulotik
eta txapel txatala
belarri ondotik
---traila----

ANALISIA


AI PERU, PERU, PERU

1. zatia 2. zatia

FORMA: A B D E A A' B B'



MELODIA



Tonika: ***Do***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 4dun J, 5dun J, 6dun m***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Do4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩ ♩.
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra, hirutarra***
Azentua: ***Hirukoa eta bikoa***
Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 3/2 2/2.

APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Jolas dantza. Peru aurkeztu eta berari buruzko azalpena egin.
1.- Musika soilik kantatuz(letrarik gabe), kantu osoa dantzatu:


A (2/4 konpasa) zatia
Korroan, binaka, besoak altzatuta eta eskuak bikoteari lotuta alde baterantz joan oinekin pultsazioa markatuz:
– Lehenengo ezkerrez zapaldu eta eskumaz, orpo-punta egin
– Gero eskumaz zapaldu eta ezkerrez, orpo-punta egin


B (6/8 konpasa)
Sokan dantzatu barra bikoitzeraino, eta hurrengo zatian, libreki, aske edo taldeka bizkarretik helduta.

2.- Letra kantatuz, dantza berbera errepikatu.

Dantza barnean Peru baldarra agertuko da buelta-bueltaka (ume bat mozorrotuta) eta kantua berari zuzenduko zaio.

Jose Mondragonek (AZKUE; *Cancionero popular vasco*)





Jose Mondragonek dauko
katua por gala,
geurean bere eztago ta, Monona,
ain bere ta argala.

Berrogeta amar erralde
zerbait gutxiago,
erotako pisuetan, Monona,
pisaturik dago.

Goiko sala barrian
emon notsan gatza,
artuko etedostan, Monona,
dauka bildur gatxa.

Jose Mondragonek dauka
katua por gala
geurean ere ez dago eta, Monona
hain bere eta argala.

Berrogeita hamar erralde
zerbait gutxiago
errotako pisuetan, Monona,
pisaturik dago.

Goiko sala berrian
eman nion gatza
hartuko ote didan Monona
daukat beldur gaitza.

Irrietan arrauetan
zortzi egun onetan
gure andrak derautse, Monona,
koipeak urketan.

Iru sebo-opiltxo ditu
irurak andiak,
iruditen jat niri, Monona,
errotako arriak.

Anaiari bialdu notsan
erregalu mortzila,
ezpanak koipatuta, Monona,
an dabil mutila.

Surmintz eta belarriak
ondo gordetako,
auzoko jenteentzat, Monona,
San Kristobaleko.
Ay si, si.....

Irri-arrauetan
zortzi egun honetan
gure andrak derautse Monona,
koipeak urtutzen.

Hiru sebo-opiltxo ditu
hirurak handiak
iruditzen zait niri, Monona,
errotako harriak.

Anaiari bidali nion
erregalu mortzila
ezpainak koipatuta, Monona,
han dabil mutila.

Surmintz eta belarriak
ondo gordetzeko,
hauzoko jendeentzat, Monona,
San Kristobaleko,
Ay si, si...

Zaigon (Aramaio) Silvestre Bengoarengandik jasotako abestia da.

ANALISIA

JOSE MONDRAGONEK

FORMA: A B D E



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 𝄴

2.7. DANTZARAKO KANTAK


2.7.1. Sarrera


Antzina, dantzak, perkusio tresnaren baten laguntzaz –panderoa edota danborra, adibidez– kantatuak izaten ziren, baina musika-tresnak sartuz batera dantzei zegozkien kantak piskanaka galdu egin ziren.

Bestalde, kasu batzuetan antzinako dantzak galdu arren doinuak mantendu izan dira eta dantza gabeko doinu hauentzat koreografia berriak sortu dituzte.

2.7.2. Kantuak

Baserritarrak.





1.- Baserritarrak gera gu,
ezin gentzake ukatu. (bis)
Baña kaletarrak bezin ongi (bis)
soñua jotzen degu (bis).

2.- Kalian dira bi gauza,
neri gustatzen zaidanak; (bis)
Ardotxo txuri goxo eta (bis)
opill koxkor biguñak. (bis)

1.- Baserritarrak gara gu,
ezin genezake ukatu.(bis)
Baina, kaletarrak bezain ongi (bis)
soinua jotzen dugu. (bis)

2.- Kalean dira bi gauza
niri gustatzen zaizkidanak. (bis)
Ardotxo zuri goxo eta, (bis)
opil koxkor bigunak. (bis)


ANALISIA

BASERRITARRAK

FORMA: A A B D



MELODIA



Tonika: ***Do-La***
Modua: ***Maiorra-minorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m, 4dun J, 6dun m, 8dun J***
Letra: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Mi3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩.
Hasierako erritmoa: ***Azefaloa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulino***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Hirukoa***
Errtimo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾
Konpasa: 3/8

Neskazaharrak. (ANSORENA; *Euskal kantak,* 2.2. zenb., 37. or.)





1.- Neskazaharrak joaten dira	*1.- Neskazaharrak joaten dira*
Madalenara, Madalenara, Madalenara	*Madalenara, Madalenara, Madalenara*
santuari eskatzera senar on bana,	*santuari eskatzera senar on bana,*
senar on bana komeni bada.	*senar on bana komeni bada.*
Santuak esaten die	*Santuak esaten die*
buruarekin ez, buruarekin ez, buruarekin ez,	*buruarekin ez, buruarekin ez, buruarekin ez,*
zergatikan lehenago akordatu ez,	*zergatik lehenago akordatu ez,*
akordatu ez, orain batere ez.	*akordatu ez, orain batere ez.*
Bat eta bi, hiru lau eta bost,	*Bat eta bi, hiru lau eta bost,*
hamar gehiago dira hamabost.	*hamar gehiago dira hamabost.*
2.- Nik baino biko gehiago	*2.- Nik baino biko gehiago*
iten baituzu, iten baituzu, iten baituzu,	*egiten badituzu, egiten badituzu, egiten badituzu,*
marama eder polita izango dezu,	*papin eder polita izango duzu,*
izango dezu, erosten badezu.	*izango duzu, erosten baduzu.*
Bat eta bi, hiru lau eta bost,	*Bat eta bi, hiru lau eta bost,*
hamar gehiago dira hamabost.	*hamar gehiago dira hamabost.*

Abesti hau J.I. Ansorenak bere ama eta izekorengandik Donostian ikasi zuen. Hauxe da abesti honen inguruan Ansorenak aipatzen duena: "Berez danbolinteroen arin-arin zahar bat baten doinua da hau. Baina Euskal Herriko hainbat lekutan ezaguna hitz hauek edo antzekoekin. Donostia eta inguruetan gehienbat, hala ere. Ni umea nintzela, oraindik Donostiako Alderdi Zaharreko neskek soka saltoan jolasteko erabiltzen zuten. Gure ama eta izeben ustez, aipatzen den Madalena hori Errenteriako ermita da.

Hemen azaltzen den hizkera Donostiakoa da. Bigarren bertsoak ez du ezkontzarekin zerikusirik eta zuzenean lotzen da umeen soka saltoarekin. Ez dut inon jasorik ikusi. Nik etxean ikasia dut ama eta izeben bitartez."

ANALISIA

NESKAZAHARRAK

FORMA: A A' B



MELODIA




Tonika: ***Fa***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tarteak: ***Mi3- Re4***


ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Konpasa: 𝄴

Aita San Migel (ANSORENA; *Euskal kantak,* 7.10. zbkia, 207.o)





1)

1.- Aita San Migel Idurretako,
zeru altuko lorea.
Agura zaharrak dantzan ikusita
hak egiten dau barrea.

2.- Garaiko plazan otea lore,
Ermuan Asentsioa.
Dantzan ikasi gura dabena
Barruetara beioa.

1.- Aita San Migel Iurretako,
zeru altuko lorea.
Agure zaharrak dantzan ikusita
hark egiten du barrea.

2.- Garaiko plazan otea lore,
Ermuan Asentsio-belarra.
Dantzan ikasi nahi duena
Barruetara bihoa.

2)

1.- Aitte San Migel
Ijurretako
zeru altuko loria.
Agure zarrak jantzan iku-
sitarek eitten jok barria.

1.- Aita San Migel
Iurretako,
zeru altuko lorea.
Agure zaharrak dantzan ikusita
hark egiten du barrea!

2.- Danon aurrien Tanbolitteru
Karmelo Gorriozkue.
Horren doinuen danok prest gagoz
egitteko Banangue.

2.- Denon aurrean tanbolinteru
Karmelo Gorriozkoa.
Horren doinuan, denok prest gaude
egiteko banangoa.

3.- Txotxangiluen arintasunez
hor dator Peru Sartada.
Hegoaizie dabillenien
jantzari ona, iñun bada.

3.- Txontxongiloen arintasunez
hor dator Peru Sartada.
Hegoaizea dabilenean
dantzari ona, inon bada.

4.- Horren pareko jantzarije da
Pepe Etxe-txikikue.
Hamaika bider jantzari-jantzan
makilla apurturikue.

4.- Horren pareko dantzaria da
Pepe Etxe-txikikoa.
Hamaika bider dantzari-dantzan
makila apurturikoa.

5.- Orain hurrengo jantzarije da
Justo Pepaztenekue
Hestu ta larri ibilli arren
ezta justu-justukue.

5.- Orain hurrengo dantzaria da
Justo Pepaztenekoa.
Estu eta larri ibili arren
ez da justu-justukoa.

6.- Gero nerbijo bako mutille
baiña jantzari abille
Aurreskularirik iñon bada
Txiflisgana etor dedille.

6.- Gero nerbio gabeko mutila
baina dantzari abila.
Aurreskularirik inon bada
Txiflisengana etor dadila.

7.- Ezkerreko hanka baltzitturik
eukitten dau Antton Marik
Iñoiz edo behin geldittu da
Jantzari-jantzie ein barik.

7.- Ezkerreko hanka belzturik
edukitzen du Anton Marik
Inoiz edo behin gelditu da
dantzari dantza egin barik.

8.- Txapliguaren arintasunez
jasoten puntapijue
Badeuko Garizarreko Billak
hortan bere jenijue.

8.- Txapliguaren arintasunez
jasotzen puntapikoa,
badauka Garizarreko Billak
horretan bere genioa.

9.- Zazpigarren mutil morroskue
Tilio bandererue.
Puzke ta puzke ibili arren
egingo deu Atzeskue.

9.- Zazpigarren mutil morroskoa
Tilio bandererua.
Puzka ta puzka ibili arren
egingo du Atzeskua.

10.- Azkenez ehun kiloko ixko bat
dogu Mikel Montokue.
Horren parien eneuke gure
eitterik Makil-jokue.

10.- Azkenez ehun kiloko idisko bat
dugu Mikel Montokoa.
Horren parean ez nuke gura
egiterik Makil-jokoa.

Durangaldean jasotako abestia da. J.I. Ansorenak ondorengo azalpen hau ematen digu: "Datozen bi kanta hauek Durangaldeko Dantzari dantzako bi atali dagozkie. Gaur egun Durangon bertan ez da egiten, baina dantza sail hau oso ondo gordetzen da inguruko herrietan: Abadiño, Berriz, Garai, Iurreta, Izurza eta Mañarian. Eta Bizkaiko dantzen artean ezagunena, osatuena eta ikusgarriena dela esan daiteke. Atal ugariak ditu eta berezitasunik handiena Aita San Migel honek erakusten duen amalgamazko konpas bitxi hau. Zortziko konpasarekin batera euskal musikaren ezaugarririk nabarmenetako bat da eta euskal musikagileek askotan erabili dute beren obretan. Esaterako, Jesus Guridik sortutako Amaia operaren Ezpatadantza dantzan."


ANALISIA

AITA SAN MIGEL

FORMA: A B B'



MELODIA





Tonika: ***Sol (erdian Mim-era flexioa)***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re#3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua:
Hasierako erritmoa: ***Anakrusikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Hirutarra eta Bitarra***
Azentua: ***Bikoa eta Hirukoa***
Erritmo landuak: 
Konpasa:

Axuri beltza. (ANSORENA; *Euskal kantak,* 7.2. zenb., 207. or.)





1.- Axuri beltza ona dut baina
zuria berriz hobea
dantzan ikasi nahi duen horrek
nere oinetara begira.

1.- Axuri beltza ona dut baina
zuria berriz hobea
dantzan ikasi nahi duen horrek
nire oinetara begira.

2.- Zertan ari haiz bakar dantzatzen
agertzen gorputz erdia
su ilun horrek argitzen badik
agiriko haiz guztia.

2.- Zertan ari haiz bakar dantzatzen
agertzen gorputz erdia
su ilun horrek argitzen badik
agiriko haiz guztia.

J.I. Ansorenak Nafarroan jasotako abestia da. Ansorenak dioenez, hitz hauekin hainbat doinu azaltzen da Nafarroan. Beste batzuetan Axuri esan beharrean Zikiro aipatzen da.

ANALISIA

AXURI BELTZA

FORMA: A A'



MELODIA



Tonika: ***Sol***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Sol3-Mi4***


ERRITMOA

Pultsua: 𝅗𝅥
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***
Erritmo landuak: ♩ ♫ | 𝅗𝅥

Txakolin txakolin (ANSORENA; *Euskal kantak,* 1.11. zenb., 31 or.)



TXAKOLIN



Txakolin, txakolin
txakolinak on egin.
Maritxu, arintxo da
Martintxo.
Ase naiz naparrez,
zuri, gorri ta beltzez.
jarri naute minez,
gabe ere onik ez.

Juan Inazio Iztuetak Gipuzkoako dantzen bilduman argitaratu zuen aurreneko aldiz. Soinu zahartzat ematen zuen, baina zaila ematen du XVII. mendekoa baino zaharragoa izateak duen melodia ildoarengatik. Hala ere, Iztuetaren arauei kasu eginez gero, soinu zahar gisa dantza daiteke.

ANALISIA

TXAKOLIN TXAKOLIN

FORMA: A B A' B'



MELODIA




Tonika: ***Fa***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J, 6dun M***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Do3-Re4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Tetikoa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Konpasa: 2/4

Orra or goiko. (AZKUE; *Cancionero popular vasco*).





1.- Orra or goiko ariztitxu baten	*1.- Horra hor goiko hariztitxu baten*
kukuak umeak egin dozak aurten,	*kukuak umeak egin ditik aurten,*
kukuak egin, amilotxak jan:	*kukuak egin, amilotxak jan:*
axe bere kukuaren zoritzarra zan.	*huraxe ere kukuaren zoritxarra zen.*
Lalaralala lala...	*Lalaralala lala...*
2.- Amilotx horri kukuak dirautso	*Amilotx horri kukuak dirautso (esatendio)*
"eztauat itziko gaur azur bat oso".	*"ez diat utziko gaur hezur bat oso".*
Ume-jaleak erantzumentzat	*Ume-jaleak erantzuntzat*
dino "ire ardurarik etxaukat".	*dio: "hire ardurarik ez diat".*
Lalaralala lala...	*Lalaralala lala...*

Azkuek Pio Ansola eta Leon Zuriarrainengandik jasoa.

ANALISIA

HORRA HOR GOIKO


FORMA: A B A' D



FORMA: A A' B B'



MELODIA



Tonika: ***Re***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J, 6dun m-M, 8dun J***
Letrak: ***Silabikoa***
Ahots tartea: ***Re3-Mi4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Azefaloa***
Bukaerako erritmoa: ***Maskulino***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***
Erritmo landuak: 
Isilune irudiak: 𝄾 𝄽
Konpasa: 𝄴

Txantxoa





Urte batzuetan galduta egon den arren, Amezketak badu bere ihauteria.

Antzina irteten zirenek kontatzen dute Talai-dantza egun osoz eta baserriz baserri egiten zutela. Sei izaten ziren dantzariak edo txantxoak, hiru eta hiru, elkarren parean aurrez aurre jarrita. Zazpigarren laguna poltsero edo zestero ibiltzen zen, baserri eta etxeetan emandako dirua edo arraultzak biltzen. Zortzigarren laguna soinujolea izaten zuten.

Janzkera berezia izaten zen talaitarako: alkondara eta galtza zuriak, gerriko eta txapela gorriak; txapela zinta zuri eta kolorezkoekin apainduta eta borla horia zintzilik; lepoan painelua eta oinetan abarkak. Dantzari bakoitzak bi makila izaten zituen.

Talai-dantzaren ingurukoa, gizonezkoen festa izan da. Neska gazteentzako festa guztia, arratsaldean, plazan hasten zen, bertan izaten baitzen soinua herriko guztientzat. Eta neska hauek izaten zuten ilusiorik handiena, Talai-dantzan ibilitako txantxoren batek avemaritarako etxera laguntzea izaten zen.

Hirurogeita hamaseian herriko talde batek berreskuratu egin zuen eta harrezkero urtero-urtero egin da.

Aldaketa asko izan dute Amezketako ihauteriek. Musika dantzariek kantatuta atera omen zuten. Janzkera ere aldatuta dago, oraingo gazteek galtza urdinak, gerriko eta txapel beltza (borla horirik gabekoa) eta lepoko painelu nabarra erabiltzen dituzte.

Gaurkoan, poltseroak dirua besterik ez du biltzen eta zestoaren beharrik ez du izaten.

Azken urteetan, bi taldetan banatuta ibili izan dira eta parterik zailenak autoz egiten dituzte.

Taldea ere sei dantzari edo txantxoz osotutakoa izan beharrean, zortzina lagunez osatutakoa izaten da.


ANALISIA

TXANTXOA

FORMA: A A B B



MELODIA



Tonika: ***Fa***
Modua: ***Maiorra***
Bitarteak: ***2dun m-M, 3dun m-M, 4dun J, 5dun J***
Letrak: ***Ez dauka***
Ahots tartea: ***Do3-Do4***

ERRITMOA

Pultsua: ♩
Hasierako erritmoa: ***Anakrusiko***
Bukaerako erritmoa: ***Maslulinoa***
Azpizatiketa: ***Bitarra***
Azentua: ***Bikoa***

Erritmo landuak: 
Konpasa: 𝄾

3. BIBLIOGRAFIA

"Adarrakoak" Taldea; *Euskal Herriko abestiak,* Gasteiz, 1980
Aldekoa-Otalora, A.M; *Dantzari dantza,* Gerediaga, 3. zenb., Durango, 1983.
Ansorena, J.I.; *Euskal kantak*. Erein, Donostia, 1993.
Arana Martija, B.; *Ixilune konpasa 2*, Elkar, Donostia, 1987.
Arana Martija, B.; *Ixilune konpasa 3*, Elkar, Donostia, 1988.
Arratia, J.M. de; *Cancionero vasco*, I-IV, Auñamendi, Donostia, 1967.
Azkue, R.Mª.; *Cancionero popular vasco*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1968.
Azkue, R.Mª.; *Cancionero popular vasco I, II*. Euskaltzaindia. Bilbo, 1990.
Donostia, Aita; *Cancionero vasco,* Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.
Dorronsoro, J.; *Bertso doinutegia, I-IV,* Euskal Herriko Bertsolari Elkartea, Donostia, 1995.
Ercilla, B. de; *Colección de cantos vizcainos*, Museo de Artea e Historia, Durango, 1988.
Etchemendy, P. eta Lafitte, P.; *Kantuz*, Ekar, Donostia, 1980.
Etniker Euskalerria; *Juegos infantiles en vasconia*, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1993.
López de Gereño, S.; *Euskal abestiak,* Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1980.
Riezu, P. Jorge; *Flor de canciones populares*, Sendoa, Donostia, 1982.
UEU. Musika saila; *Doinu zaharren inguruan*, UEU, Printzak Saila, Bilbo, 1990.